

arteka

**Soldatapeko lanaren
Juggernauta**

GEDAR

«Ohikoa da iraganeko esperientzia sozialisten lorpenak produktibitate eta finantzen grafikoetan zerrendatuta ikustea, edo "estatu sozial" baten aukera ondorioztatzea kapitalaren zenbaki edo diru-produktua oinarri hartuta, esplotazio-baldintzetan ekoiztu dena, langile klaseari erauzitako soberakin gisa. Komunistok, ordea, ez ditugu gure emantzipazioaren baldintzak ekoizpen kapitalistaren produktu espezifikoan bilatzen, baizik eta, oso alderantziz, historikoki garatutako ekoizpen-erlazio sozialetan. Hortik ez da zaila ondorioztatzea bere aukerak ekoizpen kapitalistaren produktu espezifikoan –gainbalioa, diru-soberakinaren forman– oinarritzen dituenak nahitaez erreproduzitu behar dituela produktu horren ekoizpen-baldintzak, bere esperientzia "emantzipatzailea" ahalbidetu ahal izateko»

Editoriala — 6 or.

06

EDITORIALA
Arteka

Ekoizpen
kapitalistaren
kostuak

22

KOIUNTURA
Dani Askunze

Itxieragatiko likidazioa

10



ERREPORTAJEA
Arteka

Argi-itzalak mapan

40



ERREPORTAJEA
Arteka

Herioa ogibide

26



IKUSPUNTUA
Isabel Benítez

Erreprodukzio sozialaren
auziaren harira:
teoriatik praktikara

52



KRONIKA
Arteka

Milaka ikasle, hezkuntzaren gaineko
langile kontrola aldarri

Ekoizpen kapitalistaren kostuak

EDITORIALA

Sistema kapitalistaren kritika bere logika indartuz gauzatzea erreformismoaren ohiko jarrera da. Ekinbide hori ez datza soilik komunikabide kapitalistek ematen dituzten datuak biltzean, modu kritikoan eginda ere logika horretatik kanpo geratuko ez litzatekeena, baizik eta informazioaren sistematizazio-modua eta datuek hartzen duten forma errealitatea interpretatzeko berme gisa onartzean. Gehienez ere, egia edo gezurra izan daiteke datu bakoitzaren zenbakizko balioa, baina ez datua bera, errealitatearen aurrean aldebakarreko jarrera adierazten duena.

Datuak egiazkoak diren ala ez alde batera utzita, nahi dugun helbururako garrantzirik ez duen ebazpena, kalkulagailua kapitalaren ezker hegalarren tresna nagusia bihurtzen da. Izan ere, gizarte berri bat eraikitzeko aukera kuantitatiboki deduzitzen du eta, ondorioz, gizarte berria, indarrean den gizartetik, zenbakietan eta horien zirkulatzeko eran bereizten da soilik.

Hala, ohikoa da iraganeko esperientzia sozialisten lorpenak produktibitate eta finantzen grafikoetan zerrendatuta ikustea, edo «estatu sozial» baten aukera ondorioztatzea kapitalaren zenbaki edo diru-produktua oinarri hartuta, esplotazio-baldintzetan ekoiztu dena, langile klaseari erauzitako

soberakin gisa. Komunistok, ordea, ez ditugu gure emantzipazioaren baldintzak ekoizpen kapitalistaren produktu espezifikoan bilatzen, baizik eta, oso alderantziz, historikoki garatutako ekoizpen-erlazio sozialetan. Hortik ez da zaila ondorioztatzea bere aukerak ekoizpen kapitalistaren produktu espezifikoan —gainbalioa, diru-soberakinaren forman— oinarritzen dituenak nahitaez erreproduzitu behar dituela produktu horren ekoizpen-baldintzak, bere esperientzia «emantzipatzailea» ahalbidetu ahal izateko.

Dena den, aukera horiek agortu egiten dira politika erreformistari oinarri gisa baliagarria zaion diru-soberakinaren forma kualitatiboaz jabetzen denean. Aurretik aipatu da estatuaren gastu publikora bideratutako soberakinaren zatia ekoizpen-baldintza kapitalistek mugatzen dutela, bai eta kapitalak soberakin hori kapitalizatzeko dituen beharrak ere. Ildo horretan, erreformismoaren jarduera-marjina oso estua da, diru publiko bihur daitekeen diru-soberakinaren ekoizpen kapitalistarekin batera bere publikakazio eta estatalizazio politika ahuldu nahi ez badu. Nolanahi ere, erreformismoak kuantitatiboki mugatu ez duen eta ikertu ez duen marjina estua da. Zenbat balio du ekoizpen kapitalistak eta zein dira bere erreprodukzioaren gutxieneko baldintzak?

“

Erreformismoaren jarduera-marjina oso estua da, diru publiko bihur daitekeen diru-soberakinaren ekoizpen kapitalistarekin batera bere publikakazio eta estatalizazio politika ahuldu nahi ez badu. Nolanahi ere, erreformismoak kuantitatiboki mugatu ez duen eta ikertu ez duen marjina estua da

Posible al da erreformaren aldeko politikarentzat muga bat ezartzea?

Erreformismoak oinarri dituen zenbaki gordinek, kapitalistek irabazien balantzeetan aurkezten dituztenak, muga hori ezartzea eragozten dute eta, baita, langile klasearen bizi-baldintzak hobetzeko aukera eta marjina logikoki deduzitzea ere. Baina, batez ere, langileria osoa eragozten eta ezgaitzen dute sistema kapitalistaren kritika erradikal bat egiteko, non miseria premia objektibo gisa zabaltzen den, eta ez den aberastasunaren banaketa subjektiboaren auzi soila, gobernuan sartuz eztabaida daitekeena, edo, beharbada, «herriaren eskakizunen» aurrean amore eman dezan behartuz.

Praktika sindikalean ohikoa da langileen eskubi-deak, haien soldata-eskubideak eta lanetik ez kanporatzeko eskubidea aipatutako enpresa-balantzearen datuak baliatuta defendatzea. Datu horien bidez erakutsi nahi dute irabazi kapitalistak handiegiak direla eta, beraz, langileriarekin partekatu beharko liratekeela. Ez digute azaltzen, ordea, irabazien tamainari buruz ebazteko erabiltzen duten baremoa eta, beraz, dena iritzi subjektibo batera mugatzen da, ez duena inolako oinarririk, politikaren inguruan duten ikuspegi utopikoa gauzatzeko aurkezten dituzten aurreiritzi moraletatik harago. Horri gehitu behar zaio kalkuluak egiten saiatzen direnean, edo matematikaren esparruan sartzen direnean, haien ezintasuna nabarmenagoa egiten dela: 500 langileko plantilla murrizketari 10 pertsona inguruk osatzen duten administrazio-batzarreko kideen soldatarekin aurre egin nahi diote; kostu hori, ordea, ez da heltzen, ezta gutxiago ere, aipatutako langileen soldata-kostura.

Hala ere, ez du axola kalkuluak okerrak izateak. Honakoa da benetan garrantzia duena: jarduteko eta kapitala interpelatzeko modu horrek, non harreman kuantitatibo bat baino ez den zalantzan jartzen, ezkutatu egiten du posizio kualitatiboa eta joerazkoa, estrategikoa, gero eta langile gehiago gainbalioaren ekoizpenerako soberakin bihurtzera bultzatzen duena, administrazio-batzarrak funtsezko eginkizuna betetzen jarraitzen duen bitartean. Hau da, jokabide horrek erlazio kuantitatibo hutsera murrizgarri garen izaki gisa berdintzen gaitu, errealtatean ekoizpen kapitalistaren prozesuan aurkako posizioak betetzen ditugunean, eta, horregatik ere, erabili eta botatzeko modukoak gara, kapitalaren metaketak hala eskatzen duenean.

Posizio horren ondorio politikoa klase antagoinismoa desitxuratzea da, diru-diferentzia hutsera murriztu arte. Gorago esan dugu beharrezkoa dela diru-soberakinaren edo ekoizpen kostuaren gaine-

“

Honakoa da benetan garrantzia duena: jarduteko eta kapitala interpelatzeko modu horrek, non harreman kuantitatibo bat baino ez den zalantzan jartzen, ezkutatu egiten du posizio kualitatiboa eta joerazkoa, estrategikoa, gero eta langile gehiago gainbalioaren ekoizpenerako soberakin bihurtzera bultzatzen duena, administrazio-batzarrak funtsezko eginkizuna betetzen jarraitzen duen bitartean

Hori da irabaziaren benetako zentzua: ez diru-kopuru hutsa izatea, diruak berak ezkutatutako harreman soziala baizik, non, erreformismo politiko eta sindikalak aldarrikatzen duen aberastasunaren banaketa kuantitatiboaren politikaren bidez, ezberdintasun kualitatibo oro, ekoizpen-bitartekoen gaineko nagusitasun klasista, lausotu egiten den

tiko irabazi gordinaren forma kualitatiboa argitzea. Irabazia ez da lapurreta soil bat, engainuaren edo aberastasunaren banaketa desberdin baten emaitza, alegia. Aitzitik, irabazi hori ekoizpen kapitalistaren baldintza da, eta hori gabe soldata desagertu egiten da eta langile klasea hil.

Moralaren alorrean, non erreformismoa mugitzen baita bere banaketa-politikekin, absurdoa nabariagoa egiten da. Irabazi kapitalista ez da, erakutsi nahi diguten bezala, gozamenerako objektu soil bat, denok baldintza berdinetan eskuratu beharko genukeena; are gehiago, irabaziaren zati txiki bat baino ez dute kontsumitzen kapitalistek luxuetan. Baldintza den heinean, irabazia, gainbalioaren forma transmutatu gisa, langile klasea menderatzeko tresna da, kapitalizazioa da potentzian eta, horregatik, kontrol sozial handiagoa eta esplotazio kapitalistaren hedapen handiagoa, lana gobernatzeko eta esplotatzeko gaitasuna. Egin beharrekoa ez da, beraz, irabazia kontsumoaren mesedera banatzea, baizik eta irabaziaz jabetzea, desjabetzeak ekoizpen-prozesuaren gaineko langileen kontrola eta sozializazio komunista esan nahi duen neurrian. Hori da irabaziaren benetako zentzua: ez diru-kopuru hutsa izatea, diruak berak ezkutatutako harreman soziala baizik, non, erreformismo politiko eta sindikalak aldarrikatzen duen aberastasunaren banaketa kuantitatiboaren politikaren bidez, ezberdintasun kualitatibo oro, ekoizpen-bitartekoen gaineko nagusitasun klasista, lausotu egiten den.

Klase kontraesana ez da hau bezain laua: batzuk aberatsak dira eta beste batzuk pobreak; baizik eta: batzuek sozialki agintzen dute, eta besteak menderatuak dira. Izan ere, aberastasunaren jabetze desberdina produktibitate desberdinaren ondorio izan daiteke, edo arrazoi geografikoak direla eta, baliabideak eskuratzeko aukera desberdintasunarena, edo emankortasun natural desberdinena, eta ez ezinbestean eta soilik auzi sozialaren emaitza.

Ekoizpen kapitalistaren kostuetan dago, beraz, langile klaseak lor dezakeen soldataren muga. Eta kostu horiek dira, batez ere, menderatze kapitalista erreproduzitzeko kostuak, hau da, soberakinaren gainkapitalizazio kostuak, ekoizpen-prozesuaren menderatze klasista modu zabalagoan erreproduzitzea ahalbidetzen dutenak. /

ERREPORTAJEA

ARGI-ITZALAK MAPAN

Testua **Arteka**
Irudia **Zoe Martikorena**

Zerren gainean zamatzen du ekoizpen modu kapitalistak bere errentagarritasuna? Zerk ahalbidetzen du? Galdera horri erantzuteko, nahitaezkoa da lur biribila esku artean hartu eta mapan seinala ditzakegun puntuen arteko loturak margo gorriz zirriborratzea. Mundu mailako unitatea osatzen du ekoizpen eredu kapitalistak, eta bere barne-gatazka eta kontraesanekin, maparen zabalera osoari jarri behar diogu arreta, munduko puntu batean edo bestean begi bistan dauden bizi- eta lan-baldintzak ulertzeko.

Izan ere, eremu batzuetan indarrean dauden bizi-aukerek beste toki batzuetako bizi-aukera latzak dituzte oinarri eta sostengu, eta lokarri hori ez da soilik herrialde desberdinen artean ikusten, noski: lan-sektore desberdinen artean ere garatzen da harreman bortitz eta funtsezko hori, herrialde baten barruan. Konexio horretan, bata bestearen aurrebaldintza izan daiteke, eta aldi berean, efektu. Xehatu ditzagun, bada, mapa horren hainbat argi-itzal.



Erradiografia honen aurreneko urrats modura, herrialde bakoitzeko batez besteko soldatari erreparatu diezaiokegu. Europarrak dira mundu mailako rankingean kopuru altuenak dituzten lehen hiru estatuak. Hori bai, gogoan izan behar da presio fiskal baxua eta oso biztanleria murrizta izateak ezaugarritzen dituela herrialde horiek: Suitza, Monako eta Luxenburgo dira, hurrenez hurren. Ez dute ia ehun produktiborik, eta kontinente zaharreko nahiz munduko potentzia industrialen eta multinazionalen finantza sostengua izatean oinarritzen

da euren ekonomia.

Rankingean apur bat behera eginda, oraindik zifra aski altuekin, Singapur, AEBak eta Danimarka ikus ditzakegu. Geografikoki elkarrengandik aldentutako herrialdeak hirurak. Ekialde urruneko paradisu fiskal eta kokagune logistiko estrategikoa da bata, potentzia ekonomiko zein militar globala bigarrena, eta hirugarrena, berriz, Europako energia ekoizpenean, elikagaien esportazioan eta puntako industria teknologiko espezializatuan nabarmentzen da. Hori ez ezik, bere kontrolpean ditu Feroe Uharteak eta Groenlandia,

Europarrak dira mundu mailako rankingean kopuru altuenak dituzten lehen hiru estatuak

Kasu horrek erakusten digu batez besteko soldata maila oso adierazgarri lausoa dela herrialde bakoitzeko barne-egoeraren irudi objektibo bat izateko

non arrantzarako aukera oparoa dagoen, eta hein batean, hidrokarburoen erauzketa ere bai.

Qatarrek, Norvegiak eta Islandiak jarraitzen diete atzetik. Qatar petrolioaren eta gasaren esportazioan nagusitzen da, baina hori ez ezik, haren legedia laborala Europan XIX. mende hasieran zegoenaren parekoa dela esan beharra dago, eta lan-indarraren zati esanguratsua osatzen duen langileria migrantea, bereziki, ia esklabotza-baldintzetan aritzen dela esan daiteke. Kasu horrek erakusten digu batez besteko soldata maila oso adierazgarri lausoa dela herrialde bakoitzeko barne-egoeraren irudi objektibo bat izateko, eta datu hori bestelako aldagai batzuekin gurutzatu beharko litzatekeela apur bat ikuspegi osatuagoa lortzeko.

Izatez, guztiz bestelako egoera aurki daiteke zerrendan jarraitzen dion Norvegian, adibidez. Herrialde eskandinaviarrak askoz bizi-baldintza oparoagoak ditu, klase ertain zabal batekin. Estatuak petrolioaren eta energia hidroelektrikoaren industrietan duen esku-hartzea dela eta, Ongizate Estatuaren oinarriei nahiko sendo eutsi diezaieke oraindik. Bestalde, gauza jakina da erosteko ahalmen handiagoa dutela soldatapeko langile norvegiarrek Qatarrekoek baino, azken horretan desberdintasun sozialak askoz bortitzagoak baitira. Hori guztia ezkutatzen du batez besteko soldataren zifra nominalak. Jarraian, Islandia ageri da, hori ere populazio baxukoa, energia ekoizpenean puntakoa eta arrantzaren industria garrantzitsuarekin.

Ondorengo herrialdeen artean aipatutako ezaugarriak errepikatzen dira: Australia, Hong Kong, Herbehereak, Japonia, Suedia, Arabiar Emirerri Batuak, Alemania, Irlanda, Finlandia, Kanada eta Zeelanda Berria. Alemaniaren kasuan, potentzia industrial historikoa eta esportatzaile nabarmena da, baina lehen blokeko herrialde gehienetan bezala, hirugarren sektoreak osatzen du ekonomiaren zati garrantzitsuena.

Gainera, rankingeko lehen postuetan dauden 20 herrialde horiek badute

beste ezaugarri bat amankomunean: ia gehienak NATOko kideak, NATO-ren aliatu globalak, AEBekin bigarren mailako defentsa akordioa dutenak edo faktikoki mendebaldeko bloke inperialistaren interes militarrek babesten dituzten herrialdeak direla.

Bigarren blokeari erreparatuta, 21-50. postuetan, lehiakortasun baxuagoko potentzia industrialak, paradisu fiskal txikiagoak, helburu turistiko garrantzitsuak edota lehengai estrategikoak dituzten herrialdeak ikus ditzakegu. Horietako zenbait aipatzearren: Erresuma Batua, Israel, Hego Korea, Frantzia, Belgika, Austria, Andorra, Kuwait, Saudi Arabia, Oman, Italia, Espainia, Taiwan, etab. Hemen ere aliantza militarren korrelazioa mantentzen da, nazioarteko gatasketan mendebaldeko bloke inperialistarekin argi eta garbi lerrokatzen baita herrialdeon gehiengoa.

Azkenik, batez besteko soldaten rankingaren amaieran, Afrika, Asia eta Hego Amerikako herrialdeak gailentzen dira, Europako ekonomia ahulena tarteko. Iragan koloniala, ekoizpen indarren garapen urriagoa, lehengaien ustiapen intentsiboa, lan-indarraren gaineko esplotazio basatiagoa, gerra zibilen presentzia, nazioarteko burgesia monopolisten esku-hartzea, emigrazioa eta lan-legedia lausoagoak dira nagusi bertan. Hori ez ezik, herrialdeotan ertain klasea delako blokea ia ez da existitzen. Jabego pribatua babestu, lan-indarra otzan mantendu eta berau nazioarteko burgesia monopolistaren mesedera esplotagarri jartzen duten sektore sozialak (lur-jabeak, funtzionarioak, militarrek, etab.) daude alde batetik, eta desjabetutako masa zabalak bestetik.

GORRIZ TINDATUTAKO OIHALAK

Nabarmena da lan- eta bizi-baldintza latzenak nagusitzen diren herrialde horietan hedatu direla gehien hainbat sektore; hain zuzen, lehengai merkeen ekoizpena edota industriaren faserik sinpleenetako batzuk, oinarritzko industria delakoa. Horren adibide da





Lan- eta bizi- baldintza latzenak nagusitzen diren herrialde horietan hedatu direla gehien hainbat sektore

ehungintza sektorea.

Munduko Merkataritza Erakundearen definizioaren arabera, bi aurpegi ditu ehungintzak: batetik, «industria intentsiboa» da «lanari dagokionez» eta «soldata baxuak» ditu, baina bestetik, «sektore berritzaile» bat da. Ardatz modura hartzen dugun «merkatuaren segmentuaren arabera», aurpegi bat edo bestea islatu daitekeela dio MMEk. «Kalitate handiko modaren merkatuan, industriak ezaugarri hauek ditu: teknologia modernoa, langileak eta ondo ordaindutako diseinatzaileak, eta malgutasun-maila handia».

Ehungintzaren sektorea aztertuta, firma ezagun askok ez daukate jostetailer bakar bat bera ere, edo ez modu zuzenean, behintzat. Diseinuaz eta banaketaz arduratzen dira, baina azpikontrataturako enpresen esku uzten dute ekoizpena bera, non soldatak

baxuagoak diren eta, orokorrean, lanbaldintzak gogorragoak diren. Ohartarazi izan duten modura, gaur egun, ehungintza da, beharbada, sistema ekonomiko kapitalistako ekoizpenaren egitura modu grafikoenean erakusten duen sektorea. Lehengaiak Asiako hego-ekialdera, Indiara nahiz Marokora eramaten dira, joste-tailerretan langileek (askotan emakumeak, Kanbodiaren kasuan, %90) janzkiak ekotzi ditzaten, baldintza latzetan. Gero, nazioarteko firma handiek eskuratzen dituzte arropa horiek, Parisen, Milanen edota New Yorken erakusteko eta saltzeko. Fabrikak, josteko makinak, esku urratuak eta hautsa mutur batean, eta erakusleihoak, denda argitsuak eta distira beste muturrean. Elkarri lotuta. Halako argazkiak ahalbidetzen ditu ekoizpenak jarraitzen duen mundu mailako antolaketak.


Asian kokatzen da mundu mailako arropa ekoizpenaren %60, nagusiki, Asiako hego-ekialdean. Nabarmentzekoak dira, esaterako, Bangladesh edota Kanbodia (2018ko datuen arabera, azkeneko horretan 700.000 lagunek egiten dute soldatapean lan ehungintzan). 247 eurokoa da batez besteko soldata Bangladeshen, eta 181 eurokoa Kanbodian. Bangladesh irudiztatu nahi badugu, ezin ahaztu Rana Plazako sarraskia: milatik gora hildako eta milatik gora zauritu izan ziren ehungintza sektoreko hainbat tailerri leku ematen zien eraikina behera etorri zenean, 2013an. Oihartzun handia izan zuten ezbehar horren ostean Kanbodian eta Bangladeshen langileek egindako mobilizazio jendetsuek. Lan-baldintzak hobetzea eta soldatak igotzea aldarrikatzen zuten.

Indiaren kasua ere marraz markatu

Asian kokatzen da mundu mailako arropa ekoizpenaren %60

dute askotan. Ezaguna da bertan indarrean den *Sumangali* sistema: horren bidez, gazteek (adingabeak sarri) 3-5 urtez jarduten dute joste-tailerretan, gero dotea delakoa ordaindu ahal izateko. Astean 60 orduraino egiten dituzte lanean. Haurren lana da sektore honen aurpegi gordinenetakoa, eta ez soilik joste-fasean: algodoiaren ekoizpenean nahiz oihalen sortzean atzeman dezakegu begiz haurren presentzia. India, Uzbekistan, Txina, Bangladesh, Egipto, Tailandia eta Pakistan dira ehungintzan umeen presentzia handiena duten herrialdeak, eta nabarmentzekoak dira Argentina, Brasil eta Kanbodia ere.

Asia sektorean jaun eta jabe izan arren, azken urteetan han izan den soldaten igoerarekin batera, pixkanaka, Afrikara ere mugitu dute arroparen ekoizpena. Adibidez, Etiopia eta Sudafrika jo dituzte begiz. Hego Amerikan





ere badu bere garrantzia sektoreak: Argentinan, beltzean jarduten duten langileen %78k dihardu ehungintzan.

Joste-makina zaratatsuen aurretik, gainera, izaten dira beste hainbat funtsezko urrats ekoizpenaren katean, itzalpean geratzen direnak. Besteak beste, azpimarragarria da kotoiaren ekoizpena. Txina eta India dira kotoi ekoizle nagusiak, eta atzetik jarraitzen diete AEBek, Pakistanek eta Brasilek.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen (International Labour Organization) arabera, mundu mailan, 21 milioi pertsonak egiten dute lan «nahitaezko lan-baldintzetan», eta «esklabotza modernoaren» inguruan ere hitz egin da. Ehungintza eta nekazaritzaren sektorea dira horren bi adibide. Azter ditza-gun, bada, nekazaritzaren munduan azalera irten diren zenbait gertaera, bertan gertatzen denaren hurbilketa bat egiteko.

MISERIA EREITEN

Lehen begiratuan lan- eta bizi-baldintza hobeak dituzten herrialdeetan ere sostengatzen dira ekoizpenaren sektore primarioak. Adibide modura, heldu diezaiegun Espainiako Estatuko hainbat nekazaritza jarduerari, non pi-

su berezia duen beste herrialde batzuetatik mugitzen den lan-indarrak.

Huelvako marrubiak, Murtziako mertxikak... Udaberri aldera ekiten diote toki ugaritan zenbait uzta biltzeari, eta nonahi ikus daitezke beste herrialde batzuetatik lan horiek egitera bertaratzen diren sasoikako langileak. Landako Langileen Sindikatuaren (Sindicato de Obreros del Campo) arabera, Huelvako marrubien biltzean 55.000 jornalari inguruk jarduten dute lanean. Andaluziarrez gain, baina, asko izan ohi dira Europa ekialdetik (Polonia, Errumania edo Bulgaria) nahiz Afrikatik (Maroko, Mauritania, Argelia edo Senegal) lanera joaten diren lagunak, zenbait, paperik gabe.

Esanguratsua da, esaterako, aurten Huelvako marrubi uzta kolokan geratu izana, pandemiaren eraginez mugak itxita zeudelako eta sasoikako langile gisa deituta zeuden milaka lagunek ezin izan zutelako Huelvara joan, *Neutral* atariak jaso zuenez. Luis Planas Espainiako Nekazaritza ministroaren arabera, guztira 100.000 eta 150.000 langile artean dira Afrikako iparraldetik eta Europa ekialdetik Espainiako Estatura mugitzen diren pertsonak, askotariko uzten biltzean soldatapean





«Marrubien eremu honetan egunez egun bizi dugun irudia ehunka jornalari etorkin dira, jornal bat lortzeko noraezean ibiltzen direnak; magrebtarrak, Sahara hegoaldekoak, poloniarrek, lituaniarrek edo ukrainarrak, pinudietatik irteten ikusten direnak, eta ezin duzu jakin non egin duten lo»

LANDAKO LANGILEEN SINDIKATUA (SOC)

aritzeko.

Ekar dezagun gogora Alemanian alarma-egoerari lotutako neurriak malgutu zituela gobernuak, Europa ekialdeko 40.000 sasoikako beharginek Alemaniara joateko aukera izan zeza-ten. Espainiako Estatua ez zen atzean gelditu: mugen itxiera zela eta langileak kontratatzeko izango ziren zailtasun nabarmenak ikusita, 13/2020 Errege Lege Dekretua onartu zuen gobernuak, hainbat premiazko neurri jasotzen zituena, nekazaritzarekin lotuta. Kontratazioa errazteko neurriak ziren, finean; adibidez, lan egiteko behin-behineko baimenak zituzyten migratzaileen baimenak luzatzea edota 18-21 urte bitarteko zenbait migratzaileari lan egiteko baimenak ematea. Bestalde, langabeziagatik dirulaguntzak eta nekazaritza arloko soldatak uztartzea baimendu zuen gobernuak. Horrek, noski, soldatak zein baxuak diren adierazten du.

Lan eta Migrazio Ministerioaren arabera, aurtengo otsailean, %30 soilik ziren Nekazaritzako Zerbitzu Berrezian jardun eta Gizarte Segurantzari afiliatutako migratzaileak. Bestalde, ezin ohikoagoak dira sasoiko langileek bizilekutzat izaten dituzten txabolak; batzuetan, beharginek beraiek hala moduz eraikitakoak. Afrikako Langileen Kolektiboko zenbait kidek salatu izan duenez, bost-sei pertsona bizi ohi dira etxola horietan, eta hainbat kasutan, ez dute urik edota elektrizitaterik izaten. Beste hainbat kasutan, gauak igarotzeko txabolarik ere ez dute izaten.

Hona hemen Landako Langileen Sindikatuak 2000. hamarkada erdialdean argitara ateratako testigantza gogorra:

«Marrubien eremu honetan egunez egun bizi dugun irudia ehunka jornalari etorkin dira, jornal bat lortzeko noraezean ibiltzen direnak; magrebtarrak, Sahara hegoaldekoak, poloniarrek, lituaniarrek edo ukrainarrak, pinudietatik irteten ikusten direnak, eta ezin duzu jakin non egin duten lo. Herrietako plazetan ere ikusten ditugu, zain, patroien batek, bere 4x4 ibilgailutik edo furgonetatik, egun batzuk edo ordu ba-

tzuk lan egin nahi ote duten noiz esango. Ilaran ikusten dira Palos, Mazagon, Lepe eta gainerako marrubi herrietan, astean bitan, janari pixka bat eta higie-ne-tresnak dituen poltsa bat lortzeko. Poltsa horiek udaletxeetan banatzen dituzte Caritasek edo beste Gobernu Kanpoko Erakunde batzuek, botere publikoen dirulaguntzak dituztenak, langile horien goseagatik edo etsipenagatik desordenak eztanda egin ez dezan. Familia andaluziarrak edo emakume errumaniarrak, poloniarrek edo bulgariarrak pilatuta bizi diren kortijoak, zerbitzu egokirik gabeko etxeak, batzuetan argi elektrikorik gabeak, ur berorik gabeak eta baita urik gabeak ere. Soldata barregarriak, Huelva probintziarako hitzarmen kolektiboetan berez ezarritakoa ere betetzen ez dutenak. Errendimendu-eskakizunak marrubi-kaxen topeekin, pertsonako eta lanaldiko jaso behar dituztenak, langileak langileen aurka xaxatuz».

Eta baldintzak ezin latzagoak badirudite ere, azpimarra jarri behar zaie Espainiako Estatuan nahiz Italian emakume jornalariak salatu dituzten sexu-erasoei. *El Diario*-k 2018an jaso zuenez, Huelvan marrubiak biltzen aritu ziren hainbat emakumek adierazi zuten eraso egin zietela haien nagusiek. Jazarpena nahiz bortxaketak salatu zituzten sasoikako langile horiek.

Sistema eta ekoizpen modu honek, bada, oinaze eta min batzuen bizkar eraikitzen du bere gaitasuna eta errentagarritasuna. Lur osora hedatzen diren lokarri konplexuak dira, bizi eta ekoizpen modu oso bat ahalbidetzen dutenak, eta negarra izerditzten dutenak etengabe. /

BIBLIOGRAFIA

Preciosmundi.com

Jornaleros de la fresa o esclavos modernos, *Sindicato de Obreros del Campo*

Mano de obra para la campaña de recogida de fruta: ¿en qué condiciones?, *Newtral atariak argitaratua*

Una investigación periodística denuncia violaciones a trabajadoras inmigrantes en los campos de fresas de Huelva, *El Diario-k argitaratua*

Cuaderno de comercio justo. Monográfico sobre el textil laneko bigarren kapitulua: El mercado global del textil y sus desequilibrios comerciales, *Coordinadora estatal de comercio justo*

Itxieragatiko likidazioa

«We used to make shit in this country, build shit. Now we just put our hand in the next guy's pocket»

The Wire, Frank Sobotka

Historikoki, klase borrokak hartu duen adierazpen nagusia ekonomikoa izan da, langileen *erresistentzia* borroka, alegia. Beste era batera esanda, langileak ja-da soldatapeko esplotazioaren menpe egonik, borroka hori lan-baldintzen aldekoa izan da, egunerokoan esplotatzen gaituzten baldintza hobeen edo okerragoen aldekoa. Horretarako, langile mugimenduak hartu duen antolaketa-forma, besteak beste baina batik bat, sindikatuarena izan da. Antolaketa horrek gorpuzte oso bestelakoak izan ditu, etapa historikoaren arabekoak ^[1]; hasieran sakabanaturik zeuden, gero antolaketa-indar sendoa osatu zuten, eta horrek bidegurutze politikoetara eraman zituen; ondoren, Estatuaren baitan integratu ziren eta gaur egun gainbeheran daude, zentro inperialistari dagokionez behintzat.

Horregatik guztiagatik, funtsezko desberdintasun bat dago sindikalismoak borrokan dauden klaseen arteko indar-korrelazioaren aurrean hartzen duen –termino politikoetan– izaera *defentsiboaren* eta gaur egun, baieztatu daitekeen moduan, sindikalismoa bera egoera defentsiboan egotearen artean. Ikaragarri idatzi da eta idazten ari da erreformen aldeko borrokatzearen inguruan, hau da, politika iraultzaile bati edo erreformista bati men egitearen arteko lerroaz,

aldizka lausoegia dena^[2]. Eztabaida historiko honen interesa ukatu gabe, langile mugimenduak gaur egun aurreratu egin behar dion koiuntura ez dago bideratuta erreforma ekonomiko handiak lortzera, aukerak edota arriskuak ekar ditzaketenak posizio iraultzaileentzat, bereziki, posizio horiek ahalak direnean. Izan ere, egungo egoera ez da erreformak lortzeko ikuspegiarena, kontrarreformaren etengabeko mehatxuarena baizik. Bizi-baldintzak hobetuko ez ditugula ikusita, horiek okerragotzea noraino irits daitekeen negoziatzean datza. Hori da, eta ez beste bat, gaur egun, gainbeheran da goen sindikalismoari, bere zoritxarrrerako, jokatzeko tokatzen zaion zelai nagusia, sindikalismoaren zentzurik klasikoenean behintzat.

Aurreko batean esan genuen, «klase ertainak bizirauteko duen aukera, hain zuzen ere, tarte hori gero eta txikiagoa izatean dago: jendea uretara botatzen joatea da kontua, itsasontzia hondoratu ez dadin»[3]. Bada, estrategia horrek erakutsi du aurreranzko ihesa besterik ez dela, amildegia gero eta hurbilago dagoelarik. Izan ere, gero eta geruza txikiagoetarako lan egonkorrari lotutako baldintza egoekiak berma ditzaketen heinean, alderdi eta sindikatu sozialdemokraten oinarri sozialak murriztu egiten dira ezinbestean. Eta, hau da hemen batez

Egungo egoera
ez da erreformak
lortzeko
ikuspegiarena,
kontrarreformaren
etengabeko
mehatxuarena
baizik

**Kontua ez da buruzagi
sindikalek dituzten
zereginengatik egindako *traizio*
indibidualen gaitzespen morala
egitea [...]. Ezta erantzukizuna
kentzea ere [...]. Kontua da
zein egiturazko rol egokituko
zaien sindikatu handiei krisi
ekonomiko bizkorren
eta ezintasun politikoaren
testuinguru honetan**

ere interesatzen zaiguna: ahultze poli-
tikoa jasaten dute, hau da, negoziatze-
ko ahalmena galtzen dute eta kapital
handiaren intrantsigentziak eta alde-
bakartasunak zapaldu egiten ditu.

Sindikatuak *kapitalaren eta lanaren*
arteko koexistentzia gatazkatsuaren ku-
deatzaile gisa integratu zirenetik, be-
netan baliagarriak izan dira gobernan-
tza burgeserako[4]. Horrek ez du esan
nahi hala izaten jarraitzen ez dutenik.
Gero eta gutxiago zaizkio beharrez-
koak, eta partzialki desberdinak diren
funtzioekin. Ezberdintasun nagusia
honakoa da: gobernatzea makilaren
eta azenarioaren logika modu adimen-
tsuan kudeatzea bada, azenariorik ez
bada, proportzioan handitzen da ma-
kil errazioa. Horregatik, sindikatuaren
ohiko papera bitartekariarena bada,
garrantzia handiagoa izango du orain
haren diziplina- eta kontentzio-profi-
lak. Gatazka kanalizatzeko bide bat,
eta laster ikusiko dugu zeinen estua
den, aurreikusita proletarizazio oro-
korreko testuinguru horretan jasango
ditugun kolpeak ez direla gutxi izango.

Kontua ez da buruzagi sindika-
lek dituzten zereginengatik egindako
traizio indibidualen gaitzespen mo-
rala egitea, hala nola EEEn (erregu-
larizaziorako enplegu-espedienteak)
kudeaketan, deslokalizazioetan eta
ugazaben itxieretan duten zeregina-
gatik. Ezta erantzukizuna kentzea ere,
zeina partekatua izan ohi den. Kon-
tua da zein egiturazko rol egokituko
zaien sindikatu handiei krisi ekono-
miko bizkorren eta ezintasun poli-
tikoaren testuinguru honetan. Kasurik
okerrenean, enpresaburuek jasanaraz-
ten diguten xantaiaren transmititzaile
soilaren papera izango da, eta kasurik
onenean, kalte-ordain, aurre-erretiro
edo bideragarritasun-plan ahalik eta
ez-odoltsuenak lortzen dituen ne-
goziatzaile trebeenarena, gutxienez,
langile klaseko sektore batzuentzat. /

OHARRAK

[1] Ikus Gedarreko Ikuspuntuako Adam Radoms-
kiren sindikalismoaren inguruko artikulua.

[2] Errenformen gaiaren inguruan 1909 Anton
Pannekoek-ek idatzitako eta oso ezaguna ez den
liburuxka gomendatzen dizuet: *Las divergencias*
tácticas en el seno del movimiento obrero.

[3] Dani Askunze, *Soberanía para el cambio*
social: vía nacional a la reforma. Arteka 2. zbkia,
2020ko otsaila.

[4] Gaztelaniazko *gobernanza* RAEren hiztegian:
«arte o manera de gobernar que se propone co-
mo objetivo el logro de un desarrollo económico,
social e institucional duradero, promoviendo un
sano equilibrio entre el Estado, la sociedad civil
y el mercado de la economía» (gobernatzeko
arte edo modua, garapen ekonomiko sozial eta
instituzional iraunkor bat lor dadin, Estatuaren,
sozietate zibilaren eta ekonomiaren merkatuaren
arteko oreka osasuntsua sustatuta).

ERREPRODUKZIO SOZIALAREN AUZIAREN HARIRA: TEORIATIK PRAKTIKARA

Testua **Isabel Benítez**
Irudia **Zoe Martikorena**



Azken hamarkadetan «erreprodukzio sozialaren teoria» (EST) zabaldu egin da zirkulu akademikoetan eta zenbait espazio feministatan. Artikulu honek haren sorrera, koordenatu teorikoak eta bere baitan biltzen dituen kontraesan politikoak arakutzen ditu, nagusiki «feminismoa % 99aren alde» deritzon proposamenaren harira.

Zirkulu akademikoetan eta zenbait espazio feministatan, azken hamarkadatan «erreprodukzio sozialaren teoria» (hemendik aurrera EST) zabaldu da. EST azalpen-marko berritu bat da, nazioarteko jendarte kapitalisa garaikideetan emakumeen zapalkuntzaz ez ezik nazioarteko langile klasearen beste segmentazio-ardatz batzuen berri ere ematen duena. Esplizituki feminismo sozialista-marxista esaten zaionaren oinordeko moduan agertu ohi da, bai Marxen legatu teorikoaren aldarrikapen kritikoan, baita esku-hartze politiko antikapitalista bideratutako analisi-bokazioan ere.

1970eko hamarkadan feminismoaren bigarren olatuko eztabaidak bor-borka zirela hazi zen; feminismo sozialista-marxistak bere bidea egin zuen feminismo erradikalaren eta alde bakarreko marxismoaren artean. Bestela esanda, feminismo honek apurtu egiten zuen «klase arteko ahizpatasunarekin» eta «emakumeen auziari» aurre egiteko klase-independentziaren alde egiten zuen apustu, betiere, auzi hori modu mugagabea atzeratu gabe, garaiko antolakunde komunistetako inertzia

erreformista/deterministak alboratuz^[1]. Eztabaida-zelaia «etxeko lanen inguruko debatea» izan zen. 1980ko hamarkadan zehar, genero-ikasketa kulturalak akademian, politikan eta instituzioetan sartzeko prozesu bete-betean, baztertu egin zen feminismo sozialista-marxista (haren proposamena geurtatu gabe), eta uko egin zitzairen problematika guztiak barne hartzen dituzten gizarte-alorretako azalpen-markoei eta «hirugarren bideei», esaterako teoria dualei (kapitalismo patriarkala/ patriarkatu kapitalista) edo «ekonomia feministari», zeina akademian bereizi egiten baitzen liberalismo ekonomikotik zein marxismotik^[2].

Bi hamarkada geroago, 2000ko hamarkadan, ESTaren eraginpean berraktibatu zen feminismo sozialista-marxista hori eztabaida haietako koordenatuetan kokatzen da:

a) *Teoria dualak*, hots, elkarrekin harremana duten bi zapalkuntza-logika desberdin bereizten dituztenak: zapalkuntza patriarkala batetik, eta esplotazio kapitalistatik eratorritako zapalkuntza bestetik. Feminismo erradikalaren oinarriak feminismo marxianoaren oinarriekin adiskidetzeko




–ez sistematikoki– zorioneko espazio erosoan zen, eta ahulgune teoriko handiak zituen^[3]. ESTk teoria unitarioean oinarrietan kokatu zuen bere burua.

b) Marxen balioa-lana eztabaida, etxeko lanei aplikatua («soldatak etxeko lanentzat» kanpainaren sustatzaileek planteatutako eztabaidak hizpide). ESTk, ekonomia feministaren ikuspegitik etxeko lanen inguruan egindako ikerketen eztabaida berri-tzea galdegiten du.

c) Analisia konplexuago egitea, klaseaz edo sexu/generoaz haraindiko beste zapalkuntza-ardatz batzuen trataera dela eta: perspektiba *interseksionalak*, eta, zehazki, arraza-zapalkuntza esplizituki aintzat hartzen dutenak. ESTk, teoria integratu moduan, zapalkuntza konkomitanteen deskribapena gainditu nahi du^[4].

1970eko hamarkadan zein orain, emakumearen auziaren inguruan marxismoaren suspertze teoriakoa lotuta doa kapitalismoak nazioarteko eskalan dituen kontraesanak areagotu izanarekin, nazioarteko proletalgoaren segmenturik zaurgarrienetan haiek izan dituzten krisiekin eta inpaktuekin... eta baita akademian eta oinarriaren batzarretan mo-

Emakumearen auziaren inguruan marxismoaren suspertze teorikoa lotuta doa kapitalismoak nazioarteko eskalan dituen kontraesanak areagotu izanarekin, nazioarteko proletalgoaren segmenturik zaurgarrienetan haiek izan dituzten krisiekin eta inpaktuekin... eta baita akademian eta oinarriko batzarretan modu irekian edo saiheska marxismoa baztertu zuten apustu *alternatiboen* emankortasun politiko eskasarekin ere



du irekian edo zeharka marxismoa baztertu zuten apustu *alternatibo*en emankortasun politiko eskasarekin ere. Gauzak horrela, 2000ko hamarkadatik aurrera, nabarmen feminizatu zen zentro inperialistara joandako migrazio-fluxua, etxeari eta zaintzari lotutako lanak betetzeko; 2007ko krisian ere nazioarteko lan-indarrean emakumeen parte hartzeak gorakada izan zuen, hau da, ordura arte soldatapeko lanetik baztertuta egon ziren emakumeen proletarizazio-prozesu indartsu bat gertatu zen, zorpetze-prozesuekin, lurren desjabetzearekin eta pribatizazioarekin lotuta ^[5], besteak beste, baita langile klaseko emakumeen bizi-baldintzak okertzearekin ere (etxebizitza-eskubidea mugatzea, zerbitzu publikoen prestazioen atzeraldia eta *working poor* izenekoaren zabalpena, bereziki gazteen eta guraso bakarra ama duten familietan). Ez biraketa linguistikoez, ez generoaren performatibitateak, ezta Ongizate Estatu ezin mugatuagoak^[6] ere ez diote erantzun langile klaseko emakumeen egiturazko nahiz eguneroko biolentzia areagotu iza-

nari. Erreminta politiken gabezia hori masa-fronte feministen berragerpenaren aldi berean gertatu da (ezberdina planetako zonalde bakoitzean), zeinak proposamen politiko dibergente edo, are, antagonikoak batzen baititu emakumeen berdintasunaren aldeko borrokaren ikuspegi teorikoaren, programaren eta lehentasun estrategikoen inguruan; bertan, norgehiagoka ideologikoa islatzen da, horren adibide Europako ultraeskuinak ere muturra sartu nahi izatea eta bankuetako zuzendariak beren burua aktibista feministatzat jotzea.

Feminismo antikapitalistan ere, ESTaren barnean, pluralak dira posizio politikoak. Multzo honetan eztaba daezina den adostasunen bat egotekotan, hauxe litzateke: Lise Vogelen obra dela ikuspegi unitario honen garapenerako abiapuntu serioen eta egituratuena, teoria eta praktika batzen dituen eta *Marxetik* abiatzen dena eta ez Marxen *kontra* edo Marx *gorabehera*. Puntu horretatik aparte, ESTren ekarpen desberdinen arteko ñabardurak, kontraesanak edo adierazpen eklektikoak nagusitzen dira.

Vogelen lanaren ekarpena mugarri izan zen: *langile klaseko* emakumeen zapalkuntzaren egoeraren inguruko eta, zehazki, subordinazio sozial horretan soldatapekoak ez diren etxeko lanek betetzen duten (edo betetzen ez duten) paperaren inguruko eztabaida kritikotik abiatuta, zimenduak ezarri zituen analisiaren markoa *teoria unitarioa* izan zedin. Bestela esanda, Vogeekin erne den ikuspegiak, «emakume», «familia» edo «lanaren banaketa sexuala» kontzeptuekin lotutako apriorismo unibertsalak, interklasistak eta gutxi-asko *historizatuak* baztertzen ditu jendarte kapitalistetan *langile klaseko* emakumearen zapalkuntzaren berezitasunak aztertzeke premisa eztaba daezin modura, honela, langile klaseko emakumeen zapalkuntza espezifikoak metaketa-dinamikarekin eta kapitalaren balorizazioarekin duen harremanaren analisiarekin berriro lotzeko.

Horren lehenengo eragin politikoa emakumeen berdintasunaren aldeko borroka klase ikuspegi batean eta ekonomia politikoaren kritikaren muinean zuzenki txertatzea izan zen; hots, Vogelek espezi-fikotasunari erreparatu zion, baina klase borrokaren osotasunarekin lotuta, eta apurtu egin zituen ikuspegi sektorial, partzial edo zalantziatiak. Gure iritziz, haren analisiak ikerketa-agenda garaikide oso itxaropentsu baten zimentarria ezarri zuen, eta haren parte da Michael Lebowitzen (2005) lana ere.

Beraz, ez du hitz egiten «erreprodukzio sozialaz» lan-indarra ordeztzea eta berrosatzea esan nahi duen termino moduan, zentzu marxianoan baizik, kapitalismoaren posibilitateak eta jarraikortasunerako baldintzak birsortu eta betikotzen dituen kontzeptu moduan. Michael Lebowitzen lanak modu esplizituagoan formulatu zuenez, azpimarratuz kapitalismoaren «erreprodukzio»-prozesu horrek –esan gabe doa, langile klasearen betikotzea dakarrena– ez diola eragiten «zaintza-lanei» lotutako *auzi biofisiko* bati bakarrik edo egungo edo etorkizuneko (belaunaldi-erreleboa) «zaintza-lanei» bakarrik, ezpada harreman sozialaren birsortzeari ere, hau da, soldatapeko lanaren merkatura sartzeko prest dauden eta «bere lan-indarraren jabe diren langile libreei», baina *baita* haiek kapitalaren zerbitzura egindako ekoizpen sozialaren jabe egiteko duten ezintasun politikoari ere.

Baina Lebowitzen lanean interesgarriena da *kapitalaren* erreprodukzio hedatu esaten zaiona kontrajartzen diola langile klasearen erreprodukzio hedatuari (klasea berez edo klasea berariaz). Lebowitzek, klase borroka kartografiatzean, leku zehatza ematen dio norgehiagoka horri, eta beraz, azalpen-marko funtzionalista edo deterministak

alboratzen ditu. Bestalde, «bizitzaren» nozioa ere lurreratzen du (bizitza kapitalarekin kontrajarria planteatzen duenean): ez dago *bizitzaren logikarik*, edo hobeto esanda, kapitalismoak «bizitza» nozioaren koordinatu batzuk ditu, eta langile klaseak beste batzuk. Kapitalaren eta lanaren arteko oinarritzko kontraesana kapitalak bere balioa handitzeko eta langile klaseak ekoizpen moduaren barnean klase moduan existitzen jarraitzeke duten norgehiagokaren lehenengo koska saihestezina da. Baina kontraesan hori are gehiago tenkatzen da ikuspegi politikotik ikusten dugunean klase borrokan ematen den «existitzearen aldeko borroka» sindikalismo ekonomizistaz edo politika sozialdemokratez harago doala (aztarna familistak, hots, matxistak izan edo ez), kapitalismoa gainditzea borrokatzen duenean bizitza duina izateko *sinequanon* baldintza modura, gizaki ez-alienatu bilakatzeko.

Beharbada ez hain anbizio handiko ordena analitiko batean, bestalde, Susan Fergusonek eta David McNallyk Lebowitzen urratsak jarraitzen dituzte, «osotasun organiko» marxianoaren nozioa aldarrikatzearen zentzuan. Martha E. Gimenezek (2018) hitzetan, McNallyk eta Fergusonek «osotasun kapitalistaren ulerkerak marxista-hegeliarra» jasotzen dute arraza-auzia erreprodukzio sozialaren feminismoaren markoan integratzeko metodo fidagarri modura (interseksionalitatearen teoriak hegemonizatzen dituzten ikuspegi gehigarrien edo interseksionalen aurrean).

MARX BAI, BAINA ZERTARAKO? ZER ERREPRODUKZIO SOZIALEZ ARI GARA?

Martha E. Gimenezek ESTren zenbait oinarri egindako kritikak aukera ematen digu ESTren korronte nagusian desadostasun teorikoko zenbait puntu (eta horien ondorio politikoak) ikusteko. Horietatik bi nabarmenduko ditugu, ekarpen garantzitsuenen errepasoa eginez.

Lehenik, zer motatako «doikuntza» egiten dioten Marxen obrari: erreprodukzio sozialaren teoria *osatugabe* bat den ala ez, eta hala bada, zer motatako garapena behar duen (edo ez), posible al da garapen hori kategoria marxianoak kolokan jarri gabe?^[7]Gimenezek, Lebowitzek bezala, defendatzen du Marxek «erreprodukzio soziala» aipatzean kapitalismoari ekoizpen modu gisa egiten diola erreferentzia; beraz, Marxen ikuspuntuak ez du ezer baztertzen, ez eta ahazten ere, besterik gabe koherentea da, *kapitalaren optikatik* benetan ez delako beharrezkoa lan-indarraren hornidura jariakorra bermatzen duen inolako mekanismorik artikulatzea. Bi arrazoiengatik, batetik, kapitalaren heda-

tze-dinamika propioarengatik, eta bestetik kapitalaren konposizio organikoak, kapital aldakorren kaltetan, ahalegin handirik gabe biztanleria-soberrakina sortzeko duen joeragatik (erreserba-armada industrialak). Horrek baldintza *politikoak* sortuko ditu, batetik, existitu nahi badu kapitalarekiko mendekotasunean jarrai dezan, eta bestetik, soldatak jaisteko presioa egin dezan, eta *nazioarteko* langile klasearen segmentu desberdinen barne-lehiakortasuna sustatu dezan.

Gimenezen ustez –Althusserren eskolaren eragin handia du–, *kapitalak ekoizpen moduaren* mailako analisia egiten du, kapitalismoaren logika orokor immanentearen analisi bat, baina ez *formazio kapitalista konkretuena*. Kapitalaren azterketa –kapitalaren erreprodukzio soziala ekoizpen-modu gisa hartuta– soldatapeko lanaren existentzia betikotzera mugatzea ez da gabezia bat; une horretan erabiltzen ari den analisi-maila baino ez da. Eta analisi-maila honetan, hain zuzen ere, kapitalaren metaketa-logikari ez zaizkio axola sexua, arraza ez beste zapalkuntza-ardatz batzuk. Beste analisi-maila batean, ekonomia kapitalista historikoen (*formazio sozial kapitalistak*) operatibizazio zehatzean, garrantzitsuak dira ardatz horiek, eta hain justu, beste azterketa-maila horri dagokio langile klasearen barruan gertatzen diren sexualizazio/genero-, arrazializazio-prozesuen eta bestelako zapalkuntza eta desberdintasunen azterketa espezifikoak. Beraz, okerra da kontsideratzea Marxen lanetan «populazioaren» auzia gizakien eskuragarritasuna (eta horiekin lan-indar potentzialarena) naturalizatzen duen «lege demografiko» baten moduan tratatu daitekeela, eta Gimenezen ustetan, karakterizazio horri McNally eta Ferguson atxikitzea zorroztasunik gabeko probokazio teorikoa da.

Azkenik, egileak ESTk proposatutako «erreprodukzio sozialaren» abstrakzio-arriskuetatik edo bi analisi-maila horiek modu okerrean kolapsatzeko arriskutik irteteko irteteko leiho gisa proposatzen du «erreprodukzio sozial kapitalista» kategoria (horren konfrontazio *politikoa* «erreprodukzio sozial sozialista» izango litzateke), hain zuzen, prozesu material eta ideologiko espezifikoek berri emateko, zeinetan erreprodukzio soziala gertatzen den baldintza kapitalistetan. Gimenez (2018:297; 305).

Fergusonek, McNallyk eta Arruzzak, ordea, lehenengo feminista-sozialista-marxisten kritiken berri ematen dute, zeinak, Heidi Hartmannen moduan, «itsutasun» hori Marxen pentsamenduaren gabezia analitiko bati lotzen baitiote. Izan ere, analisi hori nahitaez garatu behar da, eta horixe da, hain zuzen, ESTk egitea proposatzen duen azterketa. Egiari zor,

orain arte ez da modu sistematikoan egin garapen teoriko hori, edo behintzat, oraindik inplizituki edo ezkutuan baino ez da ageri.

Esan bezala, Lebowitzena litzateke bien arteko posizioa. Gimenezek ez bezala, ekonomialari kanadarrak uste du egia dela *Kapitala* lanean analisi-adar hori falta dela, eta hori egiteko asmoa zuela soldatapeko lanaz inoiz idatzi ez zuen liburu batean. Era berean esaten du gabezia horren eraginez *Kapitala*-n baztertu egin dela hedapenean dagoen klase borroka, eta horrek (osatugabea izateak) mesede egiten diola kapitalismoa kontraesanez betetako osotasun organiko moduan aurkezten duen aldebakarreko ikuspegiari (eta bide ematen die irakurketa mekaniko eta funtzionalistei).

Lebowitzek egiten du proposamen bat lan horretako aldebakartasun hori orekatzeko (ez datorrena *jatorrizko bekatu* batetik, ez eta bekatu androentriko edo patriarkal batetik ere, ikerketaren aurkezpena osatu gabea izateetik baizik). Horretarako, bi ekoizpen (eta erreprodukzio) zirkuitu identifikatzen ditu, konkomitanteak baina era berean antagonikoak, kapitalismoari ekoizpen modu gisa erreparatuta. Proposamen hau Gimenezek eta Fergusonek egiten duten irakurketaren garapentzat jo daiteke. Izan ere, *soldatapeko lanak* balorizazio-logikaren eta kapital-metaketa funtsezko pieza moduan ordezkatzeko duen harreman sozialaren erreprodukzioaren ikuspegitik, antagonismo horren adar *politikoak*, lanaren banaketa sexualak eta arrazializazio-prozesuek jotzen duten paperari erreparatzea eskatuko luke. Eta prozesu horiek analisisan txertatzeak (izaera historikoa dute, klase borrokaren berezko garapenaren moduan) praktika politikoan ere modu esanguratsuan integratzea ahalbidetuko liguke –Fergusonen argumentuetan ere nabari den nahia– boluntarismo hutsetik harago (Gimenezen hitzetan antzeman daitekeen kritika).

KLASEA DETERMINANTEA ALA KO-DETERMINANTEA AL DA?

Gehikuntza esanguratsu horrek, halaber, termino politikotan ere argituko luke zein paper jotzen duen klase borrokak kapitalaren balorizazio zirkuituaren *baitan* gertatzen denean eta zein zirkuitutik *kanpo* gertatzen denean. Elementu horrek dibergentziaren bigarren ardatz nagusira garamatza: metaketa kapitalistaren dinamikak, klase ardatzak eta klase borrokaren indar-korrelazioak rol determinantea ote duten klase sozialen erreprodukzio-baldintzetan, edo, kontrara, ko-eratzaila ote den eta beste ardatz batzuen *maila berean* legokeen, hala nola sexua/generoa, arrazializazioa... Vogekek berak



Klasearen ardatza arrazaren edo sexuaren ardatza bezain determinantea dela uste duten formulek bi arrisku ekar ditzakete: borroka politikoaren osaeran ikuspegi identitarioak iraunaraztea eta estrategia dualistak edo gehikuntzazkoak etengabe bizi araztea, klase-konfrontazioaren fronte unitarioen kaltetan kapitalismoaren kontra ordezkatzeko duen osotasun moduan



kezka hori adierazi zuen ESTri buruzko testu-antologia baten hitzaurrean: «Epe luzera uste dut oso errotuta dauden bi uste baztertu beharrean gaudela. Batetik, diferentziaren dimentsio desberdinak –esaterako, arraza, klasea eta generoa– konparagarriak direnaren ustea. Bigarren, termino kausaletan kategoria desberdinak baliokideak direnaren ondorioa» (Bhattacharya,2019:12). Dibergentzia horrek azken buruan klasearen independentzia politikoaren ala posizio interklasisten alde apustu egitera garamatza, baita gainbalioaren erauzketaren muinean dagoen borrokari zer toki ematen zaion pentsatzera ere (tradizionalki borroka sindikala).

Gimenezen irudiko, ESTren terminoek bi analisi-mailak nahasteak (ekoizpen modua/ formazio sozial historikoa) abstrakzioa eragiten du, eta horrek lausotu egiten ditu giza erreproduzio biologikoaren materialtasunaren eta horrek langile

klaseko emakumeengan duen eragina (haren kontzientzian, sexualitatea bizitzeko duen eran...), garrantzia teoriko eta politikoa, ugalketa-eskubideen inguruan gertatzen diren lege- eta gizarte-kontrolako ideologia eta forma ugariak, eta kapitalaren-tzat produktiboak ez diren langile klaseko segментu horien beharrak asetzeko moduak.

Sexu-zapalkuntzaz gain beste zapalkuntza-ardatz batzuk kontuan hartzearen auzia berrartuta, maila politikoan, klase borroka kapitalaren bolorizazio-zikloaren erdigunetik kentzeak, eta klasearen ardatza arrazaren edota sexuaren ardatzak bezain erabakigarritzat jotzen duten formulekin elkartzeak bi arrisku ekar ditzak: batetik, borroka politikoaren osaeran ikuspegi identitarioak iraunaraztea, eta guk gehitzen diogun bigarreña, estrategia dualista edo gehikuntzazkoak etengabe biziaraztea, klase konfrontazioaren fronte unitarioen

kaltetan (sexua, arraza eta barneko aniztasuna kontuan hartzen dituztenak baina polo antagoniko komun gisa elkartuta, ez elkarri gehituta bakarrik), kapitalismoaren kontra ordezkatzeko duen osotasun moduan.

Gimenezek posizio hau bereziki azpimarratzen badu ere, egiaz, ko-eraketa horren edo klasearen ardatza gailentzearen aldeko apustua lauso eta kontraesanez beteta ageri dira Arruzza eta Bhattacharyan^[8]. Bestela esanda, laneko borroken garrantzia nabarmentzen den arren, formulazio guztiz ambiguoak egiten dira identitatearen unibertsaltasunari/politikei^[9] dagokienez. Ambiguotasun hori, ordea, modu garbian konponduko litzateke «Feminismoa % 99aren alde» manifestuan egindako formulazioan, zeina dagoeneko hainbat klase antolakuntza politikok kritikatu baitute: «Dagoeneko ikasi dugun irakaspena da klase estrategia bat garatu nahi duen proposamen politiko batek ezin duela besterik gabe behetik sortzen diren borroken aniztasunaren aldeko deia egin»^[10], edo «*Manifestuak* aipatzen duen grebaren “berrasmatzea” ez da ekintza feminista guztiak, edozein izanda ere, izen horrekin izendatzea edo aldarrikatzea, ezta lan-auzi moduan ulertzen den ikuspegi zabal horretan zereginak atzeratzea aldarrikatzea ere, non egileek etxeko lanen greba eta “sexuaren eta irribarrean” greba nahasten baitituzte. [...] Kontrara, greba-metodoaren aldarrikapen berri hau soldatapeko langileen zerbitzura jarri behar genuke patronalarekin, Estatuarekin eta burokrazia sindikalarekin duten konfrontazioan haiek indartzeko. [...] Feminismo antikapitalistaren egungo zereginak sindikatueta borrokatzea izan behar luke, batez ere oso feminizatuta dauden produkzioaren eta zerbitzuen sektoreetan, burokraziak banatzen duena batzea lortzeko. Baina *Manifestuan*, langile klaseaz, grebaz, antikapitalismoaz eta klase borrokaz hitz egiten denean, burokrazia sindikala ez da aipatu ere egiten, eta modu arriskutsuan, oro har sindikatuak lotzen zaie haien zuzendaritzaren politika korporatibo, ekonomizista eta korrosiboa^[11]».

Ohar politiko batzuk Espainiako Estatuko ESTren inguruan

ESTk esplizituki esku-hartze politikoaren zerbitzura dagoen tresna gisa aurkezten du bere burua; beraz, postura ezberdinen analisiaren eta proposamen politiko zehatzaren arteko loturak bilatzea mugarria da. Bestela esanda, teoriaren eta apustu praktikoaren edo borroka estrategiaren arteko jarraikortasun/haustura aztertzea funtsezkoa da kapitalismoaren aurkako borrokan, baita ekoizpen

ESTaren egile nagusiek defendatzen duten ikuspegiaren lehentasun politikoa eremu politiko eta ideologikoa feminismo liberalari eztabaidatzea da, erreformismoarekin edo «identity politics»ekin dauden eztabaidak bigarren mailan utziz eta praktikan «gutxieneko izendatzaile komunaren» klasearteko fronte eta estrategien aldeko apustua eginez

modu kapitalistak langile klasearen aurka hedatzen dituen sexu, genero eta arraza zapalkuntzen askapenaren aldeko borrokan arrakasta edo porrota lortzeko aukerak ebaluatzeko ere.

ESTrekin modu esplizituan lotutako aurretiko eta garai bereko antologia eta argitalpenak egon badaude ere^[12], esan daiteke gaur egun Cinzia Arruza, Titti Bhattacharya eta Susan Ferguson direla nazioarteko erreferentzia nagusiak feminismo marxistaren/ESTren ikuspegi berri hori zabaltzeko, baita gure testuinguruan ere. Egile horiek ikusgai jartzeak izaera politikoa duen jauzi kualitatibo bat emango lioke bere ESTren begiradari, 2019an argitaratu baitzen *Feminism for the % 99* (euskarazko itzulpenean *Feminismoa % 99ren alde*) zeina, aurrez esan bezala, azken lau urteetako Martxoaren 8ko nazioarteko deialdien inguruko eztabaidak sortutako esku-hartze politikorako manifestua den.

Autore horiek defendatzen duten ikuspegiaren lehentasun politikoa feminismo liberalari eremu politiko eta ideologikoa borrokatzea da (bere aldaera eta berrikuntza ezberdinetan, *feminismo korporatiboa* deitutakoa kasu). Bigarren maila batean, ez dator bat *Italiako feminismo autonomotik*^[13] datozen figurek defendatzen dituzten jarrerekin eta *ekonomia feministaren* planteamendu boluntaristekin, nahiz eta, taktika, *ezkerreko* moduan sailka ditzakegun adierazpen feministekiko lotura-puntuak bilatzean oinarritzen den konfrontazio-puntuak bilatzean baino, kutsu herritarra duen fronte bateratu horren alde.

Oro har, ESTren joera nagusiak ukatu egiten du feminismo marxista-autonomoak soldatapekoak ez diren lanek (etxeko lanak izan edo ez) zentzu kapitalistan balioa sortzen dutenaren nozioa, eta ez du bere egiten etxeko lanetarako soldata bat aitortzearen aldeko aldarrikapena.

Ekonomia feministari dagokionez, ESTk esplizituki aldarrikatzen du Marx, eta *osotasun kapitalista* modu zehatzean konfrontatu beharra azpimarratzen du, hau da, esku-hartze eta aldarrikapen programek ezin dutela gauzen egungo egoeraren erreforma puntaletara mugatu (klase borroka alde batera uzten duen boluntarismoan oinarrituta): erantzukidetasuna, kontziliazioa, kuotak, aitorpen politikak... Zentzu praktikoan, feminismo liberala edo ultraeskuinaren *boutadeak* konfrontatzea lehentasuna denez, horrek proposamen horien adierazpen erreformista eta ikuspegi estukoei aurka ez egitea dakar, eta ez da harritzekoa «%99ren aldeko feminismoaren» ikuspegira diskurtso sozialdemokrata duten figurak batu izana, Nancy Fraser, esaterako.

«Zaintza-krisia» deiturikoaren testuinguruan –Espainiako Estatuan nabarmen ezaguna den formula, hain zuzen ere, 2007-2008ko crak-aren ondoren banku pribatua erreskatatzearen ondorioz zerbitzu publikoetan egindako gastu publikoaren murrizketen eta lan-merkatuaren deserregulazioaren harira–, berriz agertu zaigu etxeko lanari buruzko eztabaida.

Gaur egungo terminoetan, eztabaida zaharra «zaintza-lan» gisa birformulatzen da, eta, berriro ere, ezkerreko korrante ezberdinen arteko eztabaida pribilegiatuaren eremua osatzen du feminismoaren barruan.

Ikuspegi boluntaristen, sozialdemokraten (edo sozia-liberalismoak «ezkerrera uzten duen espazioa okupatzeko» hautagai diren hauteskunde-plataformen) edo Espainiako Estatuan ordena kapitalistarekin haustura planteatzen duten ikuspegien arteko tentsioa argi eta garbi ikusten da 2018ko Martxoaren 8an deitutako grebaren zehaztapenetan, greba errearen edo ikusarazte sinbolikoaren arteko desadostasunak eragindako tentsioa, hain zuzen. Bestalde, tentsioa edo eklektizismo politikoa argi ikus daitezke hizkuntza-trukaketan eta kontzeptuen eta formulazioen maileguan, hala nola «kapitalismoa-vs-bizitza» nozioan, «bizitza erdigunean jartzean», «zainketa-lanak birbalarizatzean»... Adostasun itxura ematen duten lelo horien azpian, praktikan, sakonean eztabaidatu gabeko aldarrikapen kontraesankorrak daude. Jakintzat jotakoak ez definitzeak, edo anbigutasun inklusibo kalkulatuak, talka egiten dute masa-fronte oso heterogeneo baten adierazpen, estrategia eta aliantza politikoekin, zeinetan eztabaida politikoa likidatu egiten den ikuspegi estrategikorik gabeko aldarrikapenetan eta ekintzen metaketa agonikoan.^[14]

POLITIKATIK BERRIRO TEORIARA

1990eko hamarkadaz geroztik, marko politiko orokorrean berrargitaratzen ari diren eztabaidagaiak dira, hain zuzen, borroka-fronteen zatiketa identitarioa (edo ekintza estrategikorako batasuna lortzeko ezintasuna, McNallyk eta Fergusonek 1990/2000ko hamarkadari buruz adierazi zuten bezala, nahiz eta ekintza kolektiboaren logika ez den inola ere gainditu), eta mugimendu sozialak programa erreformistek lagundutako erretorika antikapitalistekin surfeatzeko asmoaren ondorioak, izan antiglobalizazio terminoetan, termino ekologikoetan edo oraingo masa-fronte feministaren terminoetan.

Hala ere, bereziki baliagarria da kategorien eta proposamen estrategikoen arteko erlazioa arakatzeari, hau da, Feuerbach buruzko tesi ospetsua-



Mugimendu sozialak programa erreformistekin batera erretorika antikapitalistekin surfeatzeko asmoa 1990eko hamarkadatik esparru politiko orokorrean berrargitaratzen ari den eztabaida da, dela globalizazioaren aurka, dela ekologikoki, dela orain masa feministen frontean



ren praxiaren teoria eta grina eraldatzaileari berriz heltzea.

Bereziki baliagarria izan zen langile klaseko emakumeen askapenaren aldeko borrokaren eremuan, zeinetan harreman teoriko-politikoak zatitu egin baitzen. Erretorika akademikoak edo ikuspegi «teknikoek» (hau da, kapitalismoaren egiturazko baldintzatzaileak ez dituzte zalantzan jarri ezta tenkatu ere, politika ekonomiko jakinen arrakastarako ohiko oztopo gisa) entzuleria zabala lortu zuten, baita ekintza kolektiboaren amaiera feminismoaren eremuko tresna erabilgarri izan zitekeela teorizatu ere (identitatea aitortzeko politiken eta banakako performatibitatearen alde). Teoriaren zurrumbiloa eta praxi politikoa era arrakastatsuan artikulatzeko beharra gako garrantzitsua da^[15].

ESTren proposamen ezberdinetatik hedatzen diren helburu eta proposamenetan gorpuzten den teoria eta praktikaren arteko loturak, askapenerako subjektu politikoa (langile klasea) argi eta garbi kokatzea ahalbidetzen digu. Horrez gain, giltzarri diren elementuak eskaintzen dizkigute, segmentu desberdinetako (zeinetan kapitalismoak nazioarteko langileria mailakatu eta konfrontatzen duen) gorpuzten proletarizazio eta merkantilizazio prozesuen eragina eta papera argitzeko: izan organoen eta ehunen trafikoa, prostituzioa eta sabelen alokairua, bai eta langileriaren eta, bereziki, emakumeen aurka osatutako prozesuak ere, COVID-19aren krisiari lotuta (arriskuarekiko gehiegizko esposizioa, soldatapeko eta soldataz kanpoko gain-esplotazioa, osasun publikoaren desagitea, hezkuntza publikoaren ospe onaren galera eta ekintza politikoaren errepresioa). Artikulazio horrek ekintza politiko pedagogiko eta argi baterako balio beharko liguke, eta, baita, era berean, sozialdemokraziak fronte desberdinetatik planteatzen dituen leku komun faltsuak eta iruzur oportunistak desagiteko ere, izan epe laburreko helburuetara jo nahia, «pragmatismoa» edo erredentzio politikoa fronte interklasisten aurrean (masa-fronteak izan edo ez), zeintzuek, lehenik eta behin, kapitalismoaren gainditzearen ukazio teoriko eta praktikoa exijitzen duten, kapitalismo «gizatiar», «feminista» edo «antiarrazista» bat posible denaren utopiaren mesedetan. /

ERREFERENTZIAK

Bhattacharya, Tithi (ed) (2019), Teoría de la reproducció social. Ressituant la classe, recentrant l’opressió. Manresa: Tigre de Paper

Ferguson, Susan (2020) Women and work. Feminism, labour and social reproduction. London: Pluto Press

Giménez, Martha E. (2018) Marx, Women and capitalist social reproduction. Marxist feminist essays. Chicago: Haymarket Books.

Lebowitz, Michael (2005) Más allá de El Capital. La economía política de la clase obrera en Marx. Akal: Madrid

Vogel, Lise ([1983] 2013) Marxism and the oppression of women. Toward a Unitary Theory. Chicago: Haymarket Books.

Young, Iris M. (1980) Socialist feminism and the Limits of the Dual system theory a Hennessy, R. & Ingraham, C. (eds) (1997), Materialist feminism. A reader in class, difference and women's lives. London: Routledge

OHARRAK

[1] Cinzia Arruzzak Dangerous liasions liburuan garai horren ezaugarritze politikoaren errepasoa egiten du. Estatu Batuetako Alderdi Komunistaren kasu zehatzean, interesgarria da kontakizunak alderatzea, genealogien eta ibilbideen eraikuntza ez baitago posizio politikoetatik libre, horiek sortzen dituztenetatik hasita: adibide moduan, Jodie Deanen kontakizuna (Necessitem camarades, Tigre de Paper 2019) eta Susan Fergusonek (2020) egiten duena. Bestalde, espazio falta dela eta, orrialde hauetan ez diogu helduko mendebaldeko testuingurutik (lpar Amerika eta Europa) kanpoko garapen teoriko eta politikoari.

[2] Benería, Lourdes (1999), La aparición de la economía feminista. Historia Agraria, 17. zk., 59-61 orr.

[3] Ikus Irish Youngen (1980) kritika edo Susan Fergusonena (2020).

[4] Ikus «Interseccions i dialèctica: reconstruccions crítiques en la teoria de la reproducció social» (David McNally, in Bhattacharya 2019).

[5] Ikuspegi ekofeministatik, Vandana Shivaren eta Jules Falqueten lanek erakusten dute doikuntza estrukturalerako makroplanek biztanleriaren segmentu gehiagoren proletarizazioa ere eragiten duela, sarri Munduko Bankuak eta beste nazioarteko organismo batzuek sustatutako «mikrokreditu» ezagunak ematen periferia kapitalistako emakumeak «ahalduntzeko» tresna moduan.

[6] Mendetasun Legearen errealitate praktikoak argi erakusten du paperean guztia kabitzen dela, zor pribatuen ordainketak betetzeko unea eta Europako Banku Zentralaren aginduak iritsi arte. 2020ko uztaillean Gizarte Zerbitzuetako txostenek beraiek aitortzen dute Espainian mendekotasuna duten 164 pertsona hiltzen direla egunean arretarik gabe, izan mendekotasun-gradua ez delako balioetsi kolapsoagatik, edo mendekotasuna aitortua egonagatik, ordainketa denbora mugagabez atzeratu zaielako. https://www.infolibre.es/noticias/politica/2020/07/10/un_total_164_dependientes_mueren_dia_sin_recibir_atencion_segun_directores_servicios_sociales_108731_1012.html CoVid-aren testuinguruak adibide berri bezain larriak eman dizkigu prestazioak aitortzen dituzten politika publikoen potentzialaz: maiz ez dira prestazioak ematen edo haien eskura-garritasuna gainditu ezinezko langa burokratikoetara mugatzen da, hasi etxeko langileentzako Covidagatiko prestaziotik eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara arte.

[7] Balantze honen korapilo gordiarrak Marxen lanetako «populazioaren» auzira garamatza, baita bi aipu ezagunetara ere, giza ugalketa naturaren esku uztearen edo produkzioko eta erreprodukzioko harreman sozialen existentziaren inguruan.

[8] «For it is not true that the working class cannot fight in the sphere of reproduction. It is, however, true that it can only win against the system in the sphere of production»[...] An understanding of capitalism as an integrated system, where production is scaffolded by social reproduction, can help fighters understand the significance of political struggles in either sphere and the necessity of uniting them. [...] At this particular moment of neoliberal crisis, gender is being used as the weapon of class struggle by capital. [...] Our solution as Marxist revolutionaries is not to simply talk about the importance of class struggle, but to link the struggles of the formal economy to those outside of it. For this to happen, it is less important that we «win the argument» with oppressed identities. It is more important that we win their trust, by being the most intransigent fighters at home and at work. This is why in the organizations where we fight for wages (e.g., our labor unions), we need to raise the question of reproductive justice; and in our organizations where we fight against sexism and racism, we need to raise the question of wages. <https://socialistworker.org/2013/09/10/what-is-social-reproduction-theory>.

[9] «La experiencia concreta de la huelga de mujeres, [...], hizo que la cuestión de si la lucha de clases debía tener prioridad sobre las luchas “basadas en la identidad”, no solo quedara obsoleta sino también retratada como engañosa. Si pensamos la clase como un agente político, el género, la raza y la sexualidad deben ser reconocidas como componentes intrínsecos de la forma en que las personas concretan su sentido del yo y su relación con el mundo y, por lo tanto, son parte de la manera en que las personas se politizan e involucran en la lucha. [...] Es funda-

mental para la organización, las estrategias y la táctica política, la idea de que siempre deben hundir sus raíces en la experiencia concreta de las personas. La abstracción de la experiencia conduce al reemplazo del materialismo por el racionalismo –a saber, combinaciones de categorías analíticas y realidad subjetiva y su proyección libresca acerca de lo que la lucha de clases significa (o debe significar) en las realidades vividas por la gente-. Por otra parte, si el feminismo y el antirracismo aspiran a ser proyectos de liberación para el conjunto de la humanidad, entonces la cuestión del capitalismo es ineludible. El problema de la sustitución de la lucha de clases por luchas basadas en la identidad debe ser reformulado como un problema político surgido de la hegemonía de la articulación liberal del discurso feminista. [...]» <https://marxismocritico.com/2018/03/07/del-feminismo-de-la-reproduccion-social-a-la-huelga-de-mujeres/>

[10] Itaia: <https://itaia.eus/2020/01/26/politica-del-99-sumas-que-restan/>

[11] <http://www.izquierdadiario.es/Feminismo-para-el-99-es-trategias-en-debate-134929> Para una lectura sindical de clase sobre las convocatorias del 8 de marzo, es recomendable el posicionamiento de la Coordinadora Obrera Sindical en 2018: <https://sindicatcos.cat/8-de-marc-vaga-general-feminista/>

[12] Adibide batzuk: Bezanson, Kate & Luxton, Meg (eds)(2006) Social reproduction. Feminist political economy challenges neo-liberalism. Montreal: McGill-Queen's University Press; Bakker, Isabella & Gill, Stephen (eds) (2003) Power, production and social reproduction. New York: Palgrave Macmillan; Hansen, Karen V. & Philipson, Ilene J. (eds) (1990) Women, class and the feminist imagination. A socialist-feminist reader. Philadelphia: Temple University Press, ...

[13] Kaliban eta Sorginaren nazioarteko arrakasta editorialaren ondoren ikusgarritasun handia lortu du Silvia Federiciren figuraren bidez, eta Leopoldina Fortunatiren L'arcano della riproduzione. Casalinghe, prostitute, operai e capitale-ren berredizioa ekarri du (gaztelaniaz: el arcano de la reproducción. Amas de casa, prostitutas, obreros y capital). Azken horrek, gure ustez, gehikuntza okerra egiten dio balioaren teoriari, eta erdibideko posizio bat defendatzen du etxeko lanak (merkatutik kanpokoak) zentzu kapitalistan balioa ekoizten duela defendatzen dutenen eta Kapitalaren kategorien aplikazioa erabat baztertzen dutenen artean.

[14] Era berean, ez da ahaztu behar Espainiako Estatuan fronte feministak duen eztabaida politiko eta ideologikan ere presente daudela ikasketa kulturelekin eta identitate-politikekin lotutako beste ikuspegi batzuk ere, adibidez queer teoria eta aktibismoa, zeinak maiz autoerreferentziazko kultura partikularista eskatzen (eta lortzen) baituen. Eta, azkenik, feminismo liberalaren testuinguruan (hori ez da sekula ahaztu behar) neomaskulismoa (eta

«genero-ideologia» esaten dioten horren ukazioa) eta ultraeskuinak auzi feminista instrumentalizatzea ere erralitate direla. Bereziki kezagarria da gure testuinguruan eskuin muturraren mamuak (oso erreala izaki) sortzen duen asaldurak askotan isilarazi egiten dituela antikapitalismoaren muinean gertatzen diren argipenezko debate politikoak, epe laburkeriaren eta «errealismoaren» izenean (ez esateagatik, hausturak eta konfrontazioak ezaugarritzen duen proiektu politiko baten etsipena eta abandonuak eraginda).

[15] Adibide moduan erabil dezakegu Alemaniako Alderdi Sozialdemokrataren (SPD) doktrina ofizialaren eta Clara Zetkinek eragindako asalduraren arteko kontraesana, Voglek arteziaz errepasatzen duena. Kontraesanen herentzia horrek II. Internazionalaren atzerapausoak markatu zituen eta iraultza bolar bidearen elementurik apurtzaileenak inspiratu zituen; haren oihartzuna, antikomunismo hutsala gorabehera, fronte feminista garaikidearen oinarrien asanbladetan ikus daiteke oraindik.

ERREPORTAJEA

Herioa ogibide

Testua **Arteka**

Zaldibarko zabortegian hondakin eta lur toxikoek irentsitako bi langileak. Dozenaka metroko altueratik amilduta, bizia galdu duten beharginak. Iaz, bi egunez atsedetik gabe lanean jardun ostean, Bilboko Portuan zendu zen langilea. Beherapen garaian eta luzatutako lanaldian, Gasteizko Corte Inglesen hildako behargina. Pandemiaren erdian, zabor poltsek soilik babestuta, gau eta egun aritu diren osasun-langileak... Guztiok eraman ditugu eskuak burura sona handia izan duten kasu horien berri izatean. Azpian hartzen gaituen soldatapeko lanak, baina, etengabe jartzen gaitu parez pare hamaika modutara azaleratzen diren ezbeharrekin. Egituraz. Soldatapeko lanari darion hats eriak, batzuetan, leun egiten digu putz lepondoan. Sarri, ez dugu herioaren putzaldi hilkorra ia-ia sumatzen. Bestetan, begietara zuzen begiratuta zigortzen gaitu. Bat-batean, edo hainbat hamarkadaz luzatzen diren lanaldi geldoetan. Ez da erraza ogibidetzat dugun mekanismoak jariatzen duen hilkortasuna zenbakitan jasotzea, errealtate ugari geratzen baitira foku arautuetatik kanpo, itzalpean. Dena den, gure begiradaren helmena mugatua izan arren, lanpostuetan jazotzen diren askotariko ezbeharren hainbat zertzelada aurkezten ahaleginduko gara erreportaje honen bidez.

Mundu mailako datuak arakatzeari ekiten badiogu, bel-durgarria da argazkia. Iluna. 2017. urteko datu absolutuak aztertzen baditugu, ILOren (International Labour Organization) arabera, 2,8 milioi langile erailtzen dituzte urtero lanpostuan (3.2 bilioi edo 3.200 mila milioi soldatapeko langiletik). Bestela esanda: eguneko, 7.200 langilek galtzen dute bizia soldatapeko lanaren diktadura pean. Hala, mota guztietako heriotza guztien %5-7 dira ILOk zuzenean lanarekin lotutakoak, aitortutako gaixotasunek edota bestelako «lan istripuek» eragindakoak, alegia. Bestetik, 374 milioi beharginek lesioak edo gaixotasunak jasaten dituzte urtero, zuzenean lanarekin lotuta.

Lau urteko bilakaera ikusten badugu, gainera, azkar ikusiko dugu hazten doala lan ezbeharren eta erailketen kopurua. ILOk dio 2,34 milioi hilketa izan zirela 2013an (444.000 substantzia kutsakorren ondorioz, tartean, 100.000 amiantoagatik), eta 2,78 milioi 2017an. Atzerago eginda, azken hamarkadan, lanpostuan gutxienez 15 milioi behargin hil dituztela zenbatetsi du ILOk.

Begi bistakoa denez, ziur aski, erreportaje honetan jasotako kopuruetatik urrun daude datu errealak. Izan ere, informazioa eskuratu ezina da, mundu osoan, lan ezbeharren inguruan dagoen lehenengo traba. Herrialde gehienetan, zaila da oraindik zifra errealetara gerturatzea; are gehiago, industria

eta manufaktura handiak ezarri diren lekuetan (Asiako herrialde askotan, adibidez). Hämäläinen ikerlariaren arabera (2010ean plazaratu zuen *Global Estimates of Occupational Accidents and Fatal Work-Related Diseases* lana), estimatutakoan %4 bakarrik dira, mundu mailan, ILOk erregistratutako ezbeharrak.

Manufakturaren sektorean (oihalgintza, besteak beste) izaten da erailketa gehien, eta ondoren, eraikuntzan, garraioan eta biltegietan (*storage*).

Bistaratzen ari garen errealtatearen aurpegirik gogorrenetakoa dira, esaterako, azken hamarkadan munduan zehar erregistratu diren ezbehar handiak, zeintzuek hilketa masiboak eragin

Azken hamarkadan, lanpostuan gutxienez 15 milioi behargin hil dituztela zenbatetsi du ILOk [...] estimatutakoan %4 bakarrik dira, mundu mailan, ILOk erregistratutako ezbeharrak

2019, Brumadinho (Brasil)

dituzten. Gogoan izatekoak dira, adibidez, 2012an Karachin (Pakistan) oihal fabrika batek su hartu eta 255 langile erailak izan zirenekoa, 2013an Rana Plazan (Dacca, Bangladesh) oihal fabrika bat behera etorri eta 1.300 beharginek bizia galdu zutenekoa, 2019an Brumadinhoko (Brasil) meatzeetan dike bat erori eta 300 langile inguru (ez dago zifra zehatzik oraindik) hil zituztenekoa, edota, atzerago eginda, 1984an, Bophalgo (India) pestizida fabrika batean gas isuri bat izan zenekoa. Sarraskia izan zen azkeneko hori: isuriaren eraginez, 6.000-8.000 pertsona hil ziren lehenengo astean, eta beste 12.000 inguru, geroago. 150.000k izan zituzten zauri larriak. Union Carbide Corporation (UCC) AEBetako konpainiarena zen enpresaren %51, eta India-ko Gobernuarena gainerakoa.

ILOren arabera, erdiak baino gehiago dira, 100.000 langileko, 890 lan istripu inguru dituzten herrialdeak. Esan dugun bezala, askotariko gobernuen datu ofizialak eta errealtatea, ordea, ez datoz bat. Indiak, adibidez, soldatapeko lanean 222 heriotza izan zirela esan zuen 2005ean, Txekiar Errepublikak, Indiako biztanleria aktiboaren %1 soilik edukita, 231 erregistratu zituenean. ILOk estimatzen du 40.000 langiletik gora erailtzen dituztela Indian urtero (gutxienez laurdena, eraikuntzan).


1.300 milioi biztanle ditu Indiak, eta horien artean, 470 milioi pertsona sailkatzen dituzte «biztanleria aktibo» gisa. Biztanleen erdiak 25 urte baino gutxiago ditu, eta 6-12 milioi langile sartzen dira urtero lan merkatura. Mundu mailan, eraiketen intzidentzia tasa altuenetakoa du (100.000 langileko 117 erailketa: 117, 2017an); Pakistanek (100.000 langileko 44 erailketa: 44, 2002an) eta Zisjordaniak (Palestina) (idem: 38, 2015) jarraitzen diote atzetik. Oihalgintzak pisu handia du Indian, eta 500 fabrikako, lan ikuskatzaile bakarra dago. Dena den, jakin badakigu ez dela kasu bakarra. Oihalgintza industriari lotutako miseriak, esaterako, Pakistanen, Bangladeshen nahiz Camboyan hartu du leku. Herrialde horietan

ere bereziki itzalpean daude ezbeharren inguruko estimazio errealak.

EUROPA, ARGITSUA OTE?


Interesgarria da, nola ez, European argitara atera diren datuei ere kontu egitea. Eurostaten arabera, 2019. urtean, 3.344.474 izan ziren soldatapeko lanaren testuinguruan jazotako istripuak, eta 3.552 behargin erail zituzten. Datuak herrialdeka bereiziz gero, Alemanian (878.525), Frantzian (753.156), Espainian (453.437), Italian (294.161), Erresuma Batuan (225.658) eta Portugalen (135.488) zenbatu dira ezbehar gehien. Hilketei dagokienez, Frantziak (585), Italiak (484), Alemaniak (430) eta Espainiak (317) utzi dituzte daturik beltzenak. Bestalde, intzidentzia indizerik handienak Errumanian (4,5), Bulgarian, Portugalen eta Lituanian (3 inguru) ja-so dira.

Manufakturan (%18), handizkako eta txikikazko komertzioan (%12,5), osasun- eta gizarte-langintzan (%11,5), eraikuntzan (%11), garraioan eta bilte-giratzean (%9) izan da ezbehar gehien. Hilketa gehien, ordea, eraikuntzan (%21), garraioan eta biltegiratzean (%18), manufakturan (%14) eta nekazaritza, basogintza eta arrantzan (%12,5) gertatu da.



Indiak, adibidez, soldatapeko lanean 222 heriotza izan zirela esan zuen 2005ean, Txekiar Errepublikak, Indiako biztanleria aktiboaren %1 soilik edukita, 231 erregistratu zituenean

European, hilketei dagokienez, Frantziak (585), Italiak (484), Alemaniak (430) eta Espainiak (317) utzi dituzte daturik beltzenak



Number of non-fatal and fatal accidents at work, 2017 (persons)						
	Non-fatal accidents at work involving at least four calendar days of absence from work				Fatal accidents at work	
	Total	Men	Women	Total		
EU-28 (*)	3 344 474	2 232 726		1 023 690	3 552	
Belgium	70 895	49 073		21 822	59	
Bulgaria	2 230	1 583		727	93	
Czechia	45 009	31 057		13 952	95	
Denmark	48 842	29 323		19 035	28	
Germany	878 525	650 012		227 856	430	
Estonia	6 279	4 661		1 618	8	
Ireland	22 125	14 313		7 754	41	
Greece	4 223	3 033		1 190	32	
Spain	453 437	316 694		136 833	317	
France	753 156	416 848		249 533	585	
Croatia	14 164	9 290		4 868	37	
Italy	294 161	213 887		80 274	484	
Cyprus	2 068	1 584		564	2	
Latvia	1 895	1 283		612	21	
Lithuania	3 977	2 621		1 436	33	
Luxembourg	6 684	5 150		1 534	10	
Hungary	25 470	16 261		9 209	80	
Malta	1 846	1 480		356	1	
Netherlands	93 305	55 674		37 631	43	
Austria	63 993	49 817		14 176	96	
Poland	84 388	52 932		31 456	270	
Portugal	135 488	94 277		41 211	140	
Romania	4 491	3 279		1 212	241	
Slovenia	13 288	9 913		3 375	16	
Slovakia	10 091	6 688		3 403	43	
Finland	42 025	28 179		13 846	23	
Sweden	36 761	20 943		15 817	44	
United Kingdom	225 658	143 210		82 380	280	
Norway	10 004	6 056		3 948	44	
Switzerland (*)	87 388	68 419		18 967	79	

Note: non-fatal accidents reported in the framework of ESAW are accidents that imply at least four full calendar days of absence from work (serious accidents).
(*) 2016.
Source: Eurostat (online data codes: hsw_n2_01 and hsw_n2_02)



2013, Rana Plaza (Dacca, Bangladesh)

Eta eusten gaituen munduaren mapan gu bizi garen txokoari erreparatzen diogunean, datuak ez dira pozgarriak, inola ere. Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren datu ofizialen arabera, Hego Euskal Herrian, 2019. urtean, gutxienez 97.840 ezbehar izan ziren orotara. Horietatik 45.112 kasutan hartu zuten baja langileek. Urte berdinean, eta sindikatuen datuen arabera, Euskal Herrian 46 behargin izan ziren erailak haien lanpostuetan (gobernuen datu ofizialen esanetan, 31 izan ziren), eta bat desagertu zen. Bestalde, soldatapeko laneko gaixotasunei lotuta emandako parteei dagokienez, gutxienez 4.306 izan ziren iaz (datu ofizialen arabera, bederen).

Eta atzera eginez gero, gainera, are nabarmenagoa da odolez zikindutako kontagailuaren erritmo eroa. 2009-2019 hamarkadan, gutxienez 650 langile hil zituzten haien lanpostuetan Euskal Herrian. Bestalde, baja eragin zuten ezbeharrak 408.494 izan ziren.

Erailketen artean, industriako sektorean izan ziren gehienak (%41), eta

zerbitzuen sektorean ondoren (%28). Kasu guztien artean, %28 izan ziren «ez-traumatikotzat» jotakoak, beste hainbeste *in-itinere* (%28) gertatutakoak, %20 kolpe edo harrapaketen ondoriozkoak, eta erorketak, %10.

Datu ofizialetatik harago, dena den, zaila da lan istripuen eta ezbeharren argazki eta datu zehatzak izatea. Batetik, iturri ofizialek ez dituzte biltzen sindikatuen datuen artean lan ezbeharretan sartutako kasu guztiak; esaterako, erregulatu gabekoen ezbeharrak ez dira zenbatzen. Gainera, Euskal Herriari dagokionez, Iparraldeko kasuistiken inguruan opakotasun handia dago.

Ezbeharrekin gertatzen den bezala, gaixotasunen inguruko datuek ez dute errealitate osoa islatzen, noski. Parte emandako kasu asko ukatu egiten dira edo atzera botatzen dira (erdiak baino gehiago, adibidez, iaz EAEn), eta mutualitateek sarri ukatzen dute gaitzaren jatorria (lanpostua bera), kasuak osasun-sistema publikora bideratzeko. Hala ere, azken urteetan gora egin du ofizialki lanpostuei lotutako gaixotasunen kopuruak.



2013, Rana Plaza (Dacca, Bangladesh)


Gaixotasunen inguruko datuek ez dute errealitate osoa islatzen. Parte emandako kasu asko ukatu egiten dira edo atzera botatzen dira, eta mutualitateek sarri ukatzen dute gaitzaren jatorria (lanpostua bera), kasuak osasun-sistema publikora bideratzeko

Erailketak

Gobernuen datu ofizialak
(Hego Euskal Herria)


Erailketak

Sindikatuena datuak
(Euskal Herria)



Baja eragindako ezbeharrak

Gobernuen datu ofizialak
(Hego Euskal Herria)





2019, Brumadinho (Brasil)

**Europar
Batasunean
500.000 langile hilko
dira amiantoaren
ondorioz 2010 eta
2040 artean, eta
Euskal Herrian,
6.000 eta 10.000
artean**

GAITZAREN ESKUTIK

Ogibideari lotutako gaitzen artean, azpimarratzekoa da amiantoaren kasua, XX. mendean zehar gehien erabilitako minerala. Urtero, 100.000 bat langile hiltzen dira munduan amiantoarekin lanean aritu izanaren ondorioz, eta lanaren ondorio gisa aitortutako minbizi guztien %56 eragiten ditu amiantoak.

Substantzia horrek sortutako patologiak urteetara hasten dira nabaritzen (10 eta 50 urte artean izan daitezke), eta gehien 1960ko, 70eko eta 80ko hamarkadetan erabili zela aintzat hartuta, ondoriorik latzenak urteotan azaleratzen ari direla esan liteke. Estimazio batzuen arabera, Europar Batasunean 500.000 langile hilko dira amiantoaren ondorioz 2010 eta 2040 artean, eta Euskal Herrian, 6.000 eta 10.000 artean. Adibidez, EAeko Asviame elkar-teak, 30 heriotzaren berri eman zuen 2019an, baina kalkulatzten dute kasu guztien %10 baino ez direla horiek.

«Ez-traumatikotzat» hartzen diren lan-heriotzen artean daude bihotzekoek edo isuriek eragindakoak ere. UGTk iaz salatu zuenez, urtarriletik abuztura bitartean, Espainiako Estatuan 132 langile zendu ziren lan-orduetan bihotzekoak jota edo buruko isuria



2019, Brumadinho (Brasil)

izanda.

Bestalde, zuzenean soldatapeko lanari lotutako datuak eskuratzea zaila bada ere, merezi du beste gaitz batzuei aipamena egitea, estresa edo depresioa, kasu. 2015eko Espainiako Lan Baldintzen Inkesta Nazionalaren arabera, langileen %30 inguruk jasaten dute estresa. Munduko Osasun Erakundearen arabera, urtero, 800.000 pertsona inguruk egiten dute beren buruaz beste, eta munduan, 300 milioi pertsona baino gehiago bizi dira depresioarekin. 2005etik 2015era bitartean, %18,4 hazi zen gaixotasun hori jasaten zuten lagunen kopurua.

Noski, asko izan dira depresioaren edo suizidioaren eta soldatapeko lanaren lokarria erakutsi duten gertakariak. Horren adibide da France Telecomen (Orange 2013tik) gertatutakoa. 2009 inguruan «suizidio olatua» izan zen enpresako langileen artean: 19k beren buruaz beste egin zuten, hamabi beren buruaz beste egiten saiatu ziren, eta zortzi depresioan sartu ziren. Frantziako konpainia berregituraketa sakon batean murgilduta zegoenean jazo zen hori, eta langileei «moralki jazartzea» leporatu zieten enpresako exekutibo ohiei.

Eta, suizidioa eta lanpostua erla-

**2009 inguruan
«suizidio olatua»
izan zen France
Telecomeko
langileen artean:
19k beren buruaz
beste egin zuten,
hamabi beren
buruaz beste egiten
saiatu ziren, eta
zortzi depresioan
sartu ziren**



zionatu ditugun modura, inolako zalantzarik gabe lotu ditzakegu suizidioa eta lanpostu horren gabezia; alegia, langabezia. Hori baita soldatapeko lanaren bortizkeriaren beste aurpegi bat. Asko izan dira, 2007ko krisiaz geroztik, suizidioen gorakada ikertu duten lanak. 2009an *The Lancet* aldizkariak argitaratu zuen azterketaren arabera (datuetan 26 herrialde barne hartu zituzten), langabeziaren %1eko igoera bakoitzak, suizidio-tasen %0,79ko igoera zekarren 65 urtetik beherako pertsonen artean. Hong Kongo Unibertsitatearen ikerketa batek dio, 2009an, esperotakoak baino ia 5.000 suizidio gehiago izan zirela 2000tik 2007rako joerarekin alde-ratuta (ikerketak 54 herrialde hartzen zituen kontuan, batez ere, Europakoak eta Amerikakoak).

ERANTZUKIZUNA

Jakina da, erakusten dutena adina ezkutatu dezaketela datu ofizialek. Eta badira, tartean, hainbat eta hainbat zorigaitz estaltzeko baliabide hutsezi-nak; protokolo eta lege bihurtuak. Ar-gia da emaitza: istripuak jakinarazteko eta parte emateko oztopoak, irizpide ofizialetatik kanpo geratzen diren ez-beharrak (langilea ezbeharra jazo eta denbora batera zendu delako, edota istripua legez kanpoko testuinguru ba-tean gertatu delako, adibidez), eta abar. Azpikeria horren guztiaren erdian,

Azterketaren arabera (datuetan 26 herrialde barne hartu zituzten), langabeziaren %1eko igoera bakoitzak, suizidio-tasen %0,79ko igoera zekarren

Arriskuaren aurreko erantzukizun kolektiboa aldatu egiten da: jada ez da «erruaren» ondoriozko erantzukizun bat, enpresaburuaren erantzukizun objektibo bat baizik

erantzukizunaz mintzatu ohi dira as-ko. Eta erantzuleez. Eta erantzule horiek euskarritzen dituen sistemaz. Puntu honetaraino iritsita, interesga-rria da, Europan, enpresa-erantzukizunaren kontzeptuak izan duen bilakaera aztertzea. Europako esta-tuetan, lan-istripuetatik eratorritako kalteei dagokienez, lau etapa bereiz-ten dituzte enpresa-erantzukizunaren konfigurazioan:

1. Lehenengo etapa (1880-1900): Industria-Iraultzarekin batera, «lan baldintza berriak» agertu ziren, eta lanpostuarekin lotutako arriskuak lan-gileen gain erortzen ziren. Enpresabu-ruen ardura, ardura zibilera mugatzen zen, «erruaren» kontzeptuarekin eta ulerkerarekin lotuta.
2. Bigarren etapa (1900-1920): en-plegu-emailearen erantzukizun indibi-dualaren nahitaezko aseguru-a ager-tu zen. Nahitaezko kalte-ordaina eta erantzukizun objektiboa ezarri ziren. Belgikak (1903), Portugalek (1919) eta Herbehereek (1921) jo zuten enplega-tzailearen erantzukizun indibiduala-ren nahitaezko asegurura. Alemaniak 1884tik zuen lan istripuen aseguru-a.
3. Hirugarren etapa (1920-1950): arrisku profesionalaren teoria sortu zen (enpresaburuek erantzukizuna du-te, ez eragindako kaltearen erruduntzat jotzen direlako, arriskuaren jatorrizko eragileak direlako baizik). Arriskuaren

aurreko erantzukizun kolektiboa al-datu egiten da: jada ez da «erruaren» ondoriozko erantzukizun bat, enpre-saburuaren erantzukizun objektibo bat baizik. Hala, gaixotasun profesionalak eta *in itinere* istripuak barne biltzen dira. Aseguru profesionalak eta Derri-gorrezko Istripuen Gizarte Aseguru-a ezarri ziren Norvegian (1915), Suedian (1916), Islandian (1917), Danimarkan (1920), Luxenburgon (1925) edota Frantzian (1946).

4. Laugarren etapa (1950-Gaur egun): laneko segurtasun- eta osasun-politikak, funtsezko printzipio gisa ezartzen den arriskua prebenitzeko kudeatzen dira. Izatez, aseguratzailleen erantzukizuna da prebentzio-funtzioak betetzea. /

ERREFERENTZIAK

- [1] <https://www.gaindegia.eus/eu/node/2788>
- [2] <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1706/lan-istripuak-gora-baldintza-txarrak-direla-medio>
- [3] <https://www.ikasbil.eus/eu/dokutekako-fitxa?articleId=16517524>
- [4] Lan osasunerako Nafarroako plana 2015-2020: Diagnostico de la situacion actual (10. orritik aurrera): Laneko Osasunaren Nafarroako III. Plana 2015-2020
- [5] Comunicaciones de sospecha de enfermedad profesional en la Comunidad Autónoma de Eus-kadi en 2017 y Evolución 2008-2017 (pdf, 4,43 MB). Informe de Osalan de julio de 2018.
- [6] Informe de accidentes de trabajo y enfer-medades en la C.A.E. en 2017 (pdf, 6,36 MB). Informe de Osalan de julio de 2018.
- [7] Accidentes laborales de tráfico en la C.A.E. 2000-2015 (pdf, 3, 14 MB). Informe de Osalan de octubre de 2016.
- [8] Accidentes laborales bajo la perspectiva de género en la C.A.E. 2004-2013 (pdf, 993 KB). Informe de Osalan de octubre de 2014.
- [9] Accidentes laborales de tráfico en la C.A.E. 2009-2013 (pdf, 1,02 MB). Informe de Osalan de marzo de 2014.

- [10] <https://www.osalan.euskadi.eus/es-tadisticas-osalan/?r01kQry=tC%3Aeus-kadi%3BtF%3Aopendata%3BtT%3Aesta-distica%3Bm%3AstatisticDiffusionDate.BETWEEN.01%2F01%2F2020%2C31%2F12%-2F2020%2CdocumentLanguage.EQ.es%3Bo%3A-contentCreateDate.DESC%3Bc0%3Ar01e-00000fe4e66771ba470b819e45a15e8799725%3B-p%3AInter%3B>
- [11] http://www.mites.gob.es/es/estadisticas/monograficas_anuales/EAT/2019/index.htm
- [12] <http://www.mites.gob.es/estadisticas/eat/welcome.htm> (2020ko aurrerapena, ekaina arte).
- [13] <http://www.risquesprofessionnels.ameli.fr/statistiques-et-analyse/sinistralite-atmp/dossier/nos-statistiques-sur-les-accidents-du-travail-par-ctn.html>
- [14] https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Accidents_at_work_statistics
- [15] https://www.ilo.org/shinyapps/bulkexplorer38/?lang=en&segment=indicator&id=INJ_FATL_ECO_NB_A
- [16] El suicidio en el trabajo como riesgo a prevenir. Jose Antonio Fernandez Aviles eta Silvia Martinez Ortiz (2019)
- [17] Suicidio y desempleo: Barakaldo 2003-2014. Jon García Ormazza (2016)

KRONIKA

Milaka ikasle, hezkuntzaren gainekeo langile kontrola aldarri



Testua
Irudia

**Arteka
Gedar
Ikasle Abertzaleak**

Hasi da 2020-2021 ikasturtea eta, pandemiarekin ere, klase presentzialak bueltatu dira ikastetxe zein unibertsitateetan. Klase arrakala areagotzen den bitartean, osasun bermerik ez heziguneetan, horrek langileriarentzat ekar ditzakeen ondorio latzekin.

Testuinguru horretan, milaka ikasle atera dira kalera irailaren 15ean

eta 24an Hego Euskal Herrian, hezkuntzaren gainekeo langile kontrola berme bakar gisa aldarrikatuz. Hori lortzeko bidean, hiru neurri exijitu ditu Ikasle Abertzaleak (IA): «Ikasle langileontzat hezkuntzara sarbidea bermatzea, ikasketa modalitate telematikoak sortutako zailtasun akademikoek ikasleon ikasketa prozesua ez oztopatzea eta lan politikoa egiteko eskubidea bermatzea».



Ilun da oraindik. Ez da eguzkia atera. Ingurura begiratu eta margoketak, pankartak, kartelak... ikusi daitezke; eta lehen piketeak. Irailaren 15a da, greba eguna Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako heziguneetan. Ikasle Abertzaleak antolakundeak unibertsitatean, bigarren hezkuntzan eta lanbide heziketan deitu ditu ikasleak grebara.

*Margoketak,
pankartak,
kartelak...*



Pasabidean oihuak: «Ikasle altxa, hasi da iraultza!». Kalera atera eta eskola batetik datorren ikasle zutabera batu dira ikasleak. Batak besteari txalo egin eta hurrengo ikastetxerako bidea hartzen dute, distantziak errespetatzeko errenkadaka antolatuz. Gero eta gehiago dira.

Ikasturtea hasi berri da. Ez da denbora askorik izan greba antolatzeko. Baina hor dira piketeak, eskuorriak, klasera doazenei grebaren zergatia azaltzen dietenak... Klasera zihoazen hainbat ikaslek grebarekin bat egitea erabakitzen dute, eta klasera sartzen saiatzen dira beste hainbat. Garbitzaileei, azpikontratetako beste langile batzuei bezala, greba eskubidea ukatu diete «zerbitzu minimoen» aitzakiapean.



*Ikasle
altxa, hasi
da iraultza!*

Hainbat herritatik autobusean mugitu dira hiriburuetara, ikasle manifestazioetan parte hartzeko. Batzuk, ordea, zailtasun handiekin. Greba egiteko eskakizunak aurkeztu diren 76 eskoletatik 58tan alboratu ditu eskakizunak zuzendaritzak. «Lan politikoa egiteko bermeak izan arte borrokan jarraituko dugu», dio IAK. Greba eskubidea urratzeaz gain, beste askatasun politiko batzuk urratzen ari direla salatu dute: biltzeko, aurkezpenak egiteko, propaganda jartzeko...



***Greba eskubidea
urratzeaz gain,
beste askatasun
politiko batzuk
urratzen ari direla
salatu dute: biltzeko,
aurkezpenak
egiteko,
propaganda
jartzeko...***



Goizeko 11:00ak dira eta mobilizazio nagusiak abiatzeaz dira Sarrikotik (Bilbo), Ibaetatik (Donostia) eta Elurretatik (Gasteiz). Antolakuntza maila izugarriarekin aurrera doaz ikasleak, COVID-19aren aurrean segurtasun irizpideak bermatuz.



***Indar
polizialak
campusetik
kanpora!***

Poliziaren presentzia handia da kalean, ikastetxe inguruetan zein campusetan. Gasteizko ikasleen manifestazioa moztu du Ertzaintzak. Gazte bat identifikatzen saiatu dira, baina ez dute lortu. Berriz ere martxan dira manifestariak oihu artean: «Indar polizialak campusetik kanpora!»



Kolore gorriak kalea hartu du: banderak, bengalak, ke poteak... «Hezkuntzaren gaineko langile kontrola!» dioen pankarta eskegi dute balkoi batetik hiru gaztek. Txalo artean, oihu gehiago: «Langileon mendekua, prozesu sozialista!».



*Langileon
mendekua,
prozesu
sozialista!*

Aurrera doaz hiru manifestazioak eta, hiruretan, langile klasearen kontrako ofentsibari egiten diote erreferentzia, horren aurrean hezkuntza sozialista eraikitza dei eginez.



Unibertsitateko hainbat eragilek ere bat egin dute deialdiarekin, besteak beste, Gasteizko Unibertsitateko Emakume Taldeak (GUET), Arrakalak edota Unibertsitateko Indar Batasunak. Azken horiek, unibertsitateko ikasle langileen defentsan, 12 puntu dituen programa zehatz batekin. Indarrak baturik, ibilbidearen bukaerara heldu dira ikasleak, borrokaren beharra argi utziz: «Borroka da bide bakarra!».

Ehunka ikasleren aurrean, hala diote Donostiako bukaerako hitzartzean: «Auzia kapitalaren menpeko hezkuntza edo langileon kontrolpeko hezkuntzan datza». Ekitaldiak amaitzen dira eta ikasleak badoaz. Horietako asko, hurrengo egunean ikasle gehiagorekin batera antolatze gogoein.



*Borroka
da bide
bakarra!*



Heldu da osteguna, irailak 24, ikasle mobilizazio eguna Nafarroa Garaian. Batzuk irten dira herritik antolatutako autobusarekin, beste batzuk jolas-orduarekin batera institutura heldu den zutabera batu dira, unibertsitateko pasabideetan hasi da jada mugimendua... eta badoaz denak Foruen Plazara. Polizia-indarren kontrol estua nabari da.



Argazkia | MIGUEL OSÉS



*Gora
ikasle
langileon
borroka!*



Eguzkia ezkutatzear denean 200 ikasle batu dira Iruñeko Hezkuntza Delegaritzaren aurrean, dagoeneko izan den grebako aldarriekin batera, deialdi berri bat luzatuz Nafarroa Garaiko ikasleriari: manifestazioa irailaren 24an Iruñeko Foruen Plazatik.

Arrosadia auzoa zeharkatzen du manifestazioak, ez-ohiko ibilbidea eginez. «Gora ikasle langileon borroka!» oihukatzen dute ikasleek. 1.500 ikasle inguru, bi errenkadetan, Nafarroako Unibertsitate Publikora (NUP) bidean aurrera eginez.



Aulario eta liburutegi arteko plaza bete dute ikasleek. Inguruko txokoetan ere badira ikasleak, ekitaldian parte hartzen. Hala diote UIBko eta IAKo bozeramaileek: «Indarrak batuz eta elkarrekin borrokatuz bakarrik defendatu eta hobetu ditzakegu langile klaseko sektore ezberdinen bizi- zein ikas-baldintzak». Espainiako Poliziak hainbat gazte hormaren kontra jarri ditu ekitaldiaren amaieran, identifikatzeko.

3.700 ikasle inguru kalean eta ikasturtea hasi berri.

3.700 ikasle



Argitaraturik
2020KO IRAILEAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa, Erredakzioa eta Diseinua
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER **@ARTEKA_GEDAR**
INSTAGRAM **@ARTEKA_GEDAR**
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Lege gordailua
GR 1731-2019

Lizentzia





arteka